

**SEXUA, GENEROA ETA GENERO
IDENTITATEA GORPUTZ HEZKUNTZAKO
SAIOETAN
GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Senperena Arona, Ianire.

ZUZENDARIA: Hermoso Larzabal, Eider eta Gamito Gomez, Rakel.

2022/23

LABURPENA

Gradu amaierako lan honetan gizarteak generoaren inguruan inposatzen dizkigun rol eta estereotipoak landu eta puskatzen lagunduko duen zerbitzu bat azalduko da. Gaur egungo gizarte honetan eskoletan hezkidetzan lan egiten den arren, Gorputz Hezkuntzako saioetan aurretik aipaturiko rol eta estereotipo horiek, mutil eta neskak nolakoak izan behar duten eta nola jokatu behar duten esaten digutenak, oso presente daude.

Lan honen helburuetako bat Gorputz Hezkuntzako saioetan modu dinamiko eta dibertigarri batean sexua, generoa, genero identitatea, hezkidetzak eta eskola-jazarpena lantzea izango da. Horretarako, dinamika eta joko ezberdinak eramango dira aurrera. Beste helburu garrantzitsu bat, mota honetako gaiak modu teoriko batean ez ezik, mugimendu eta dibertsioaren bitartez landu daitezkeela eta Gorputz Hezkuntzako saioetan gai sakonak landu daitezkeela erakustea da. Guzti horretarako, Ikaskuntza-Zerbitzua metodologia izan da oinarri, ikaskuntza-prozesuan ere fokua jartzeko eta hausnarketa kritiko profesionala garatzeko, azken helburua etorkizuneko irakasle izango naizenerako tresna eta baliabide ezberdinak garatzea baita.

Amaitzeko, aurrera eramandako hamar saioetan egunerokoan, ikasle zein irakasleei eginiko galdeketetan eta ebaluazio errubriketan jasotakoa analizatzeko, eragiketa estatistiko oinarrizkoak eta azterketa kualitatiboa erabili dira. Ondorioei dagokionez, Ikaskuntza-Zerbitzuak eta Gorputz Hezkuntzaren bitartez sexua, generoa eta genero adierazpena bezalako gaiak lantzeak dituen onurak aztertu dira eta azkenik, lan honek izan dituen mugak eta hobekuntza proposamenak azaltzen dira.

Hitz gakoak: Ikaskuntza-Zerbitzua, Gorputz Hezkuntza, sexua, generoa, genero identitatea, hezkidetzak, eskola jazarpena, jazarpen homofobikoa, Lehen Hezkuntza eta esku-hartzea.

RESUMEN

En este trabajo fin de grado se planteará un servicio que ayude a trabajar y romper los roles y estereotipos que la sociedad nos impone en torno al género. A pesar de que en la sociedad actual se trabaja en coeducación en las escuelas, en las sesiones de Educación Física están muy presentes los roles y estereotipos antes mencionados que nos dicen cómo deben ser y cómo deben actuar los chicos y las chicas.

Uno de los objetivos de este trabajo es trabajar de una manera dinámica y divertida en las sesiones de Educación Física el sexo, el género, la identidad de género, la coeducación y el acoso escolar. Para ello se llevarán a cabo diferentes dinámicas y juegos. Otro objetivo importante es demostrar que este tipo de temas se pueden tratar no sólo de forma teórica, sino también mediante el movimiento y la diversión, y que se pueden trabajar temas profundos en las sesiones de Educación Física. Por todo ello, el Servicio de Aprendizaje se ha basado en la metodología para poner el foco también en el proceso de aprendizaje y desarrollar una reflexión crítica profesional, con el fin último de desarrollar diferentes herramientas y recursos para ser profesor de futuro.

Por último, para el análisis de lo recogido en el día a día en las diez sesiones desarrolladas, en las encuestas realizadas al alumnado y profesorado y en las rúbricas de evaluación, se ha utilizado el sistema de categorización, con las operaciones estadísticas básicas y el análisis cualitativo. En cuanto a las conclusiones, se analizan los beneficios de trabajar a través del Servicio de Aprendizaje y de la Educación Física temas como el sexo, el género y la expresión de género, y se exponen las limitaciones y propuestas de mejora de este trabajo.

Palabras clave: Servicio de Aprendizaje, Educación Física, sexo, género, identidad de género, coeducación, acoso escolar, acoso homofóbico, Educación Primaria e intervención.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. MARKO TEORIKOA	5
2.1. Ikaskuntza-Zerbitzua (I+Z)	5
2.1.1 Definizioa	5
2.1.2. Ikaskuntza Zerbitzuaren ezaugarriak	6
2.1.3. Ikaskuntza-Zerbitzuaren faseak	6
2.2. Generoa haurraren garapenean	8
2.2.1 Kontzeptu gakoak	8
2.2.2. Hezkidetzaren egoera eta eragina hezkuntza sisteman	10
2.2.2.1 Generoan oinarritutako eskola-jazarpena	12
2.3. Generoaren lanketa Gorputz Hezkuntzan eta irakasleen jarreraren eragina	13
2.4. Aurrera begira ditugun erronkak	15
3. HELBURUAK	16
4. METODOA	16
4.1. Testuingurua	16
4.2. Parte-hartzaileak	19
4.3. Tresnak	19
4.3.1. Behaketa fitxa	19
4.3.2. Ikasleen eta irakasleen iritziak ezagutzeko galdetegia	20
4.3.3. Errubrikak	20
4.3.4. Egunerokoa	20
4.4. Prozedura eta analisisa	21
5. EMAITZAK	23
5.1. Zumaiena eta generoaren lanketa: errealitatea, irakasleen ikuspegitik	23
5.2. Lehen Hezkuntzan genero lantzeko esku-hartzea (zerbitzua)	25
5.3. Garapen profesionala eta pertsonala (ikaskuntza-prozesua)	33
6. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK	35
7. MUGAK ETA HOBETZE PROPOSAMENAK	38
8. BIBLIOGRAFIA	39
9. ERANSKINAK	44

1. SARRERA

Azken urteetan gizarteko kideen arteko berdintasuna, generoa eta genero identitatea asko landu diren gaiak izan dira. Hauek, ordea, ikuspuntu teoriko batetik lantzen ohi dira eta benetan praktikara eramatea beharrezkoa da. Horrelako gaiak ezin dira liburuen bitartez edo paperean ariketak egiten ikasi, benetan barneratu ahal izateko bizitu egin behar direlako eta, horretarako, jolasak baliatzea oso eraginkorra da (Azúa-Menéndez et al., 2019).

Horri erantzuteko, Gradu Amaierako Lan (GrAL) honetan, Gorputz Hezkuntzako saioetan, dinamika ezberdinen bitartez, sexua, generoa, genero identitatea, hezkidetzak, eskola jazarpena eta jazarpen homofobikoa bezalako gaiak lantzea helburu duen zerbitzua diseinatu, inplementatu eta ebaluatu da, esku-hartze didaktiko gisa. Zerbitzua Zumaiena ikastetxeko seigarren mailako ikasleekin batera jarri da martxan eta 10 saioz osatu da.

Gainera, hori guztia Ikaskuntza-Zerbitzua (I+Z) metodologiaren bitartez gidatu da eta, ondorioz, nire ikaskuntza-prozesua ere ikerketa-fokua izan da. Emandako pauso guztietan nire rolari buruz hausnartu dut, gerora gogoetak aztertzeke eta nire garapen profesionalari zein pertsonali lortutako ikaskuntzak identifikatzeko.

Horregatik, aipagarria da lan honen balio erantsia. Esku-hartze baten lanketa osoaz gain, hausnarketa pertsonalak kualitatiboki analizatu dira. Hau da, lanak ikaskuntza-egoera baten diseinu didaktikoa eta ikerketa uztartzen ditu. Beraz, lanketa teoriko, planifikazio, ardura, inplikazio, ekintza eta konpromiso handia eskatu duen lan batean aurrean gaude.

Gainera, GrALa UPV/EHUren Campus Bizia Lab (CBL) programaren barnean kokatzen den "Errealitateak eraldatuz: Unibertsitatea eta Komunitatea, hezkuntza Gradu Amaierako Lanetako (GrAL) Ikaskuntza-Zerbitzuaren (I+Z) bitartez humanizatzeko xedearekin lanean" proiektuaren parte izan da. Asmoa da testuinguru errealean jardutea, Garapen Iraunkorrerako Helburuetan (GIH) eragiteko, kasu honetan, zehazki kalitatezko hezkuntzan (4. GIH) eta desberdintasunen murrizketan (10. GIH). Azken finean, egungo ikasleak etorkizuneko helduak izango dira, eta gure esku dago balore eta oinarri egokiak erakustea eta gizarte geroz eta toleranteago eraikitzea: pertsonak garen bezala onartzea eta errespetatzea.

Jarraian, marko teorikoaren atalean, I+Z behar bezala ulertu ahal izateko oinarri teorikoa azaltzen da. Bertan, eskainitako zerbitzuan lantzen diren gaien zergatia eta garrantzia justifikatzen dira. Lanean zehar, I+Z burutu den testuingurua, metodologia eta saioen inguruko informazioa ere azaltzen da, baita zerbitzua burutu ostean ateratako emaitzak zein ondorioak.

2. MARKO TEORIKOA

Gradu Amaierako Lan honen marko teorikoan bi atal bereiz daitezke, alde batetik Ikaskuntza-Zerbitzua (I+Z) zer den, nola garatzen den eta bera, sakontasunean ulertu ahal izateko ezaugarriak eta bestetik, generoa eta Gorputz Hezkuntza?. Bigarren atal honetan, generoa, sexua, sexu identitatea bezalako kontzeptuen azalpena, eragina, Hezkuntza Sistemaren egoera, Gorputz Hezkuntzako ikasgaien garrantzia eta honen baitan sortzen den bazterkeriari erantzuteko hezkidetzak.

2.1. Ikaskuntza-Zerbitzua (I+Z)

2.1.1 Definizioa

I+Z oro komunitatean identifikatutako behar batetik abiatzen da. Dinamika sozial, kultural eta ekonomikoengan begirada kritikoa jarritz, “biztanleriak bizi dituen zailtasun eta arazo errealek kontzientzia hartzeak motibazioa eta erantzukizun soziala pizten du, guztiona dena zaintzeko nahiaz eta beharraz ohartuz” (Puig et al., 2011, 55. or.).

Roser Batlle-k (2011) I+Z gizarteari zuzenduriko hezkuntza metodologia gisa definitu zuen. Honen esanetan, pedagogia aktiboetan oinarritzen da eta beste hezkuntza metodologia batzuekin bateragarria da. Hau da, metodologia honetan gizartean dagoen egoera batetik abiatuta, ikasleei arazoaren ebazpenaren partaide bilakatzea proposatzen zaie, horrela, problematika modu teoriko batean lantzeaz gain, modu aktibo batean jorratzen da edo jorratzeko aukera zabaltzen du.

Zerbitzu hauen xede nagusia, Rafael Mendiak (2012, 73. or.) dioen bezala, “bizitza ikaskuntzari eta ikaskuntza bizitzari gerturatzea da”. Eskola eta gizartea bereizitako bi entitate gisa ikusteari utzi behar zaio. Bizitza ikaskuntzara gerturatzeak, ikasleen gaitasun pertsonalak hobetzea suposatzen du, beraien ikaskuntza prozesuaren protagonista bilakatzen ditu, eta ikasleen heziketa pertsonala eta soziala bultzatzen dituen eta bidelagun bilakatzen diren ikaskuntza komunitate bat sortzen laguntzen du (OP. CIT, Mendiak, 2012).

Metodologia berritzaile hau, curriculumean agertzen diren kompetentzietatik aldendu daitekeela pentsa daiteke. Baina hori ez da horrela, izan ere, Rafael Mendiak (2012) dioen bezalaxe, I+Z-k oinarritzko kompetentziak lantzeko tresna bikainak dira. Hauen bitartez, Oinarritzko Hezkuntza Curriculumean (236/2015 Dekretua) agertzen diren oinarritzko zehar kompetentziak jorratu daitezke, besteak beste, “ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia”, “elkarbizitzarako kompetentzia”, “ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia” eta “norbera izaten ikasteko kompetentzia” (236/2015 Dekretua, 2. or.).

Oinarrizko kompetentziez gain, Pilar Aranburuzabalak (2015) dioen bezala, bizitzan zehar garrantzitsuak izango diren gaitasunak garatzen laguntzen du, hala nola pentsamendu kritikoa, arazoaren ebazpena, hiritartasuna eta erantzukizun sozialaren garapena. Aurrekoak ez ezik, I+Z balioen aldetik aberatsa da, izan ere, parte-hartzaileek prozesuan konpromisoa, kooperazioa, kontzientzia soziala, positibismoa eta enpatiaren lanketa sakona egiten dute (Teijeira, 2016).


Aprenatze-Serveik (2016) dionaren arabera, esan daiteke proposamen metodologiko honek bi prozesu mota batzen dituela, alde batetik jakintza kurrikularrak eta praktika, eta bestetik komunitateari egingo zaion zerbitzu bat. Hauek, proiektu bakar batean lotu behar dira, inguruko behar errealekin lan egin eta hobetzeko asmotan.

2.1.2. Ikaskuntza Zerbitzuaren ezaugarriak

I+Z batek, hainbat ezaugarri bete behar ditu hala kontsideratua izateko, izan ere, erraza izango litzateke beste metodologia batzuekin nahastea, proiektu bidezko metodologiekin esaterako.

1. irudia

I+Z-ren koadranteak



1. irudian ikaskuntza maila eta zerbitzu mailaren arabera, koadrante ezberdinetan sailkatzen dela ikus daiteke. Bi balore hauek gehiago edo gutxiago lantzen direnaren arabera, ekintzak lau koadranteetan sailka daitezke: komunitate zerbitzuak, ikaskuntza zerbitzuak, inizatiba solidario asistematiakoak eta landako lana (Tapia, 2007) (ikusi 1.irudia).

Iturria: *Norberak eginga Tapia (2007) oinarri izanik.*

2.1.3. Ikaskuntza-Zerbitzuaren faseak

Roser Batlle (2015) adituaren arabera, I+Z bat aurrera eramatea beste edozein proiekturen antzerakoa da. I+Z proiektu baten garapena funtsezko hiru bloke hauetan laburbiltzen da: prestakuntza, gauzatzea eta ebaluazioa. Era berean, bloke hauetako bakoitza, beste azpibloke batzuetan sailkatzen da (Beatle, 2015) (ikusi 1. taula).

1. taula

I+Z faseak eta azpiblokeak

PRESTAKUNTZA	1	Ideien zirriborroa edo proposamena. Gizarteko beharra, emango den zerbitzua eta garatuko diren ikaskuntzak agertu behar dira.
	2	Entitatearekin kontaktuan jartzea. Hauei ideia proposatu behar zaie aurrera eraman ahal izateko, eta nola burutuko denaren inguruko akordio batera iritsi behar da.
	3	Plangintza. Zerbitzuaren nondik norakoak xehetasunez zehazten hasi behar da, alderdi pedagogikoak (helburuak planteatzea), hezkuntza komunitatearen parte hartzea (irakasleak, gurasoak...), denboraren kudeaketa (kronograma bidez), ebaluazioa etab.
GAUZATZEA	4	Prestakuntza. Zer ikasi nahi duten, zer prestatuko duten eta zerbitzu honekin zer lortu nahi duten definitu behar da. Lan kooperatiboa bultzatu behar da.
	5	Zerbitzua aurrera eramatea edo garapena. Inguruko pertsona eta entitateekin harremanak egin eta ikasitakoaren eta zerbitzuak nolako lana egin duenaren inguruan hausnartu behar da.
	6	Amaiera eta ospakizuna. Lorturiko emaitzen eta eginiko lanaren inguruan hausnartu behar da (ikaskuntza eta zerbitzuaren kalitatea) jarraian zer egingo duten erabakitzeko. Prozesua eta eginiko lana ospatzen da, eginiko esfortzua errekonozitzeko eta autoestimuari errefortzua egiteko.
EBALUAZIOA	7	Ebaluazioa. Klaseko taldea, entitateen lana eta I+Z-ren esperientzia ebaluatuko dira autoebaluazioaren bitartez.

Iturria: Norberak egina Batle (2015) oinarri izanik.

Badira ordea, zerbitzu bat aurrera eraman aurretik kontuan hartu behar diren alorrak. Maria Nieves Tapia-k (2017) dioen bezala, hasteko, I+Z-ren barnean ikasleen gaitasun eta interesei egokituak dauden talde ekintza ezberdinak eskaini behar dira, ikasleen ahalik eta parte hartze handiena bermatuz eta haien interesetara gerturatzen diren bizipen lokalak bultzatuz. Behin zerbitzua buruturik, lorturiko emaitzak, ebidentziak, frogak... bildu behar dira, horrela ikasleek egin duten lanaren emaitza ikusi ahal izango dute. Eta amaitzeko, ikasitakoa, klasean landuriko teoriarekin lotu behar da, ikasleak jakintza hauen baliagarritasuna ikusteko.

2.2. Generoa haurraren garapenean

2.2.1 Kontzeptu gakoak

Generoen arteko bereizketak, identitatearen garapena eta feminismoaren berdintasun aldarrikapenen nondik norakoak ulertu ahal izateko, gure gizartearen funtzionamendua ulertu behar da. Horretarako, ezinbestekoa da gizarte heteropatriarkal baten barnean hezi eta bizi garela ikustea.

Maria José Díaz Aguadok (2006) dioen bezala, sexismoa, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun sozial eta psikologikoak, sexu biologikoaren ezberdintasunarekin nahastean datza. Alde hauek automatikoak eta saihestezinak direla pentsatu ohi da, historiaren, gizartearen, hezkuntzaren eta kulturaren eragina ahaztuz.

Heterosexualitatea nagusi den gizarte batean, eta gizona emakumearen gainetik gailentzen duen sistema heteropatriarkala nagusi den gizarte batean, haurrari jaiotzen den unetik, dituen genitalekin loturiko generoa eta orientazio sexuala ezartzen zaio. Haurrak zakila badu, gizon heterosexuala izan beharko da, eta alua badu, emakume heterosexuala izan beharko da. Genitalen araberako izaerak arautzen dituzte, eta feminismoaren lana da imaginario kolektibo horrekin amaitzea (Portugal, 2020).

Egun, heterosexualitate konbentzionala hartzen da arau gisa eta hortik aldentzen den oro salbuespen gisa ulertzen da, gainerako orientazio sexualak alboratuz. Rodolfo Listur-ek (2019) dio heterosexualitate konbentzionalak bizitza soziala arautzen duela, gizarteko kide guztiak heterosexualak direla suposatuz eta homosexualak diren guztien gain estigmatizazioa, santzioa eta bazterketa bultzatuz.

Pixkanaka aldatzen ari den arren, egun indarrean jarraitzen du familiak, guraso heterosexualak izan behar direnaren ideiak. Emakumea etxean geratu behar da haurrak eta etxea zaintzeko, eta gizonak, lana egin eta etxera dirua ekartzeaz arduratu behar du (Herrera et al., 2018). Gizon eta emakumeek familiaren barnean eta gizartean dituzten rol hierarkizatuek, bizitzako eginkizunetan eta bizi zikloan berdintasuna oztopatzen dute (Lamas, 1996).

Adrienne Rich-ek (1998) dioen bezala, heterosexualitatea aukera bat baino gehiago, heteropatriarkatuaren barnean biltzen den inposizio estruktural bat da, gizonezkoiei emakumeen gaineko kontrol fisiko, ekonomiko eta emozional bat ematen diena. Haur, nerabe, gazte eta heldu guztiei, jaiotza unetik, bikote heterosexualaren irudia igortzen da zuzena den hori zer den irakasteko. Eta hori gutxi balitz, aukeraketa honekin gizonezkoiei

emakumeen gain hainbat eskubide bermatzen zaizkienaren ideia saltzen da, emakumea jabetza bat izango balitz bezala.

Familia tradizionaletik aldentzen den oro, familia tradizionalaren kontzeptuarentzat erronka bilakatzen dira, izan ere, errealitatearen parte izate hutsak, familia hegemonikoaren ideia apurtzen du. Hau, bikote eta guraso heterosexualetan oinarritzen da eta identitate sexuala gizon eta emakumeen arteko erlazio gisa definitzen du (Cruz et al., 2018).

Genero berdintasuna lortzeko borroka feminista geroz eta indartsuagoa den arren, eta azken urteetan gauza asko aurreratu diren arren, gizartean gizon eta emakumeen artean dagoen aukera eta estatus ezberdintasuna handia da. Egun indarrean dauden genero berdintasunerako politikak, legeetatik haratago, ekintzak planifikatu eta burutze aldera zuzenduak daude (Fernandez de Castro, 2012). Politika horiek guztiak genero berdintasunaren ikuspegitik lantzeko, emakumeen ahalduntzea bultzatzeaz gain, giza eskubideen, osasun sexualaren eta hezkuntzaren aldetik landu behar dira (Fernandez de Castro, 2012).

Ikasleekin gai hauek naturaltasunez joratu ahal izateko, irakasleek kontzeptu gako batzuk ezagutu behar dituzte, hala nola zer den sexua, generoa, eta batez ere, gizarteko kideak nola iristen diren generoaren identitatea garatzera. Euskaltzaindiak dioenaren arabera, sexua, arra eta emea bereizten dituen ezaugarri fisikoen multzoa da (Euskaltzaindia, d.g., 1 definizioa). Beraz, sexua jaiotzen garen unean ditugun genitalek definituko dute, zakila eta barrabilak izateko kasuan arra, eta bagina izatekotan emea.

Generoa aldiz, identitatearekin erlazionaturik dagoen kontzeptu bat da. Hau da, pertsona nola identifikatzen denarekin erlazionatzen da eta ez du zertan genitalekin edo jaiotzen garen sexuarekin bat egin behar. Faktore ezberdinetan oinarrituz, lau, bost edo sei genero ezberdinu daitezke: heterosexual maskulinoa, heterosexual femeninoa, homosexuala, lesbiana, bisexuala eta ez definitua. Beraz, maskulinitatea eta feminitatea ezin dira dikotomia sexualaren aukera posible bakarra bezala kontsideratu (Burggraf, 2001). Hauetaz gain, badira beste zenbait errealitate, hala nola, pertsona trans*-ak beste sexukoa direnak, eta beste sexuko pertsonen ezaugarri fisikoak, hormonien edo kirurgiaren bidez, hartzen dituztenak.

Hori guztia oinarri harturik, ulertu behar da, ezin dela haurra, bere identitatea aurkitu aurretik, genero batekin erlacionatu, ezagutza prozesu hori egiten utzi behar zaio, zer diren edo nola identifikatu behar diren inposatu gabe. Geure gizartea ordea, sistema bitar batean oinarritzen da, sistema hauek gizon eta emakumeen arteko oposizioan oinarritzen dira, helburu hierarkiko batekin maskulinoa eta femeninoa bereiziz (Lamas 2015). Hortaz, hezkuntza da

indarra hartu behar duen entitatea, ikasleak libreki hezteaz arduratu behar dena, genero estereotiporik gabe.

Genero identitateak, gizakiok generoaren inguruan garaturiko sentimenduari egiten dio erreferentzia, hau da, pertsona orok generoa bizitzeko duen moduari buruz, eta honek norbanakoaren identitateari, banakotasunari eta partaide sentimenduari nola eragiten dionaren inguruan hitz egiten digu (Gallardo 2009). Partaidetza, identitate sentimenduari erlazonaturik dagoen kontzeptu bat izanik, generoa gizarteak sorturiko ideia bat dela ulertu behar da.

Ikaskuntza sozialaren teoriak izango dira lehenengo aldiz generoaren ikaskuntza ikuspuntu sozial batetik aztertuko dituztenak. Hauek, errefortzu positibo eta negatiboek, imitazioak eta behaketa bidezko ikaskuntzak, genero identitatearen barneraketan duen eragina aztertuko dute (Rodriguez eta Peña 2005). Vigotsky-k (1978) gure garapena, oinarri genetiko bat duen arren, kulturala dela eta norbanako bakoitzak bizituko dituen esperientziek baldintzatua egongo dela dio (Baggini 2008).

2.2.2. Hezkidetzaren egoera eta eragina hezkuntza sisteman

Eleanor MacCoby-en (1972) esanetan, Hezkuntza Sistema, haurren generoarekiko partaidetza prozesuaren tresna garrantzitsu gisa identifikatu da. Eskolak bi jarrera hauen bitartez bultzatzen du genero identitatearen ikaskuntza, alde batetik, bertan gertatzen diren elkarrekintza sozialen bitartez, haurrek gizon eta emakumeen ezaugarri nagusiak barneratzen dituzte. Eta bestetik, eskolak, gizartean gertatzen den bezala, mutil eta nesken arteko ezberdintasunak birproduzitzen eta berresten ditu, mutilen boterea bermatuz.

Haurrak, bertan ematen diren harremanetatik eta mezuetatik ikasten dute, egunerokotasunean, modu inplizitu batean baldin bada ere, beraien sexuarekin erlazonaturik dauden mezuak igortzen zaizkie. Hainbat jarrera txalotuak diren bitartean, beste hainbat zigortuak dira, eta haurraren genitalen arabera, txalotuak eta zigortuak diren horiek ezberdinak dira. Ikusten duten hori praktikan jarri eta zorionduak direnean, sexu bakoitzarekin erlazonaturiko jarreraren barneraketa ematen da, eta haurrak berea den horrekiko lotura sortzen du (Mischel, 1972).

Esan daiteke ikaskuntza prozesu osoa gizarteak baldintzatua dela. Egiten den ekintza bakoitzak erantzun bat jasotzen du, eta emaitza horrek etorkizuneko jarrerak baldintzatuko ditu. Hau da, eginiko ekintzaren emaitza positiboa bada, inguruko onarpena jasotzen bada, ekintza hori errepikatu egingo da. Aldiz, emaitza negatiboa bada, ekintza ez errepikatzeko aukerak handiagoak dira.

Eskolak genero rolen barneratze prozesuan duen garrantziarekin jarraitu ahal izateko, Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Curriculumak, 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskinak osatzen duen curriculum orientatzaileak generoaren inguruan zer esaten duen aztertu behar da. Curriculumeko oinarrizko zehar kompetentzien barnean, “Norbera izaten ikasteko kompetentzia ” (236/2015 Dekretua, 2016, 48. or) irakurri daiteke. Zehar kompetentzia honek hainbat osagarri ditu bere baitan eta zehazki 5.ak, “gorputzaren funtzioak eta norberaren osasuna, ongizatea, gorputz-irudia eta sexu-nortasuna autoerregulatzea” honakoa dio:

Gorputz-dimentsioaren autorregulazioaren honako alderdi hauek bereiz daitezke:

- Funtzio fisiologikoaren, biologikoaren, motorraren eta sentsorialaren kontzientzia eta erregulazioa.
- Norberaren osasunaren zaintzaren eta ongizatearen kontzientzia eta erregulazioa.
- Gorputz-irudiaren kontzientzia eta erregulazioa.
- Sexu-nortasunaren kontzientzia eta erregulazioa.

Gorputz-adierazpenaren bidez adierazitako sentimenduen eta emozioen hitzik gabeko komunikazioaren kontzientzia eta erregulazioa. (236/2015 Dekretua, 52.or.)

Bertan bi puntu nabarmendu daitezke “Gorputz-irudiaren kontzientzia eta erregulazioa” eta “Sexu-nortasunaren kontzientzia eta erregulazioa”. Bi puntu hauek generoarekin eta genero identitatearekin lotura estua dute, izan ere, biek hartzen dituzte bere barnean edertasun-kanonak, gizarte-estereotipoak eta gizarte-presioak hauen lorpenean duten eragina. Faktore hauek, generoaren barneraketan ere eragin zuzeneko ezaugarri gisa sailka daitezke.

Esan bezala, badira, neska eta mutileri zuzenki erlazionaturiko ezaugarri, jarrera eta estereotipoak. Deaux eta Lewis-ek (1984) gure gizartean ematen diren generoari loturiko estereotipoak lau taldetan banatu zituzten, pertsonalitateari erreferentzia egiten diotenak (emakume sentibera eta gizon indartsuak), gizarteko parte hartzearekin erlazionatuak (emakumeen zaintza lanak eta gizonen konponketa saioak), ogibideei erreferentzia egiten diotenak (sexuen araberrako lanpostuen banaketa), eta itsura fisikoarekin erlazionaturikoa (emakume sentsualak eta gizon gogor eta soraioak).

Aipatu diren ezaugarri guzti hauek deuseztatzeak eskola inklusioaren ideiarekin bat egiten du. Haur eta gazte guztiak hezkuntzara irits daitezzen bermeak ematen dituen da eskola inklusiboa (Booth et al., 2005). Hori horrela izanik, eskola inklusiboak kalitatezko hezkuntza eta hezkuntza-aukera berberak eman nahi dizkie ikasle guztiei, horrenbestez, eskola

inklusiboaren planteamenduan sartzen da aniztasun horren aitortza faltaz kontzientzia hartzea, genero arrazoiengatik gizarte presioez eta bazterketez jabetzea, eta diskriminazio egoerak erregulatzea, besteak beste.

Era berean eskolaren lana da ikasleei onarpen prozesu honetan laguntzea eta garapen zuzen bat eman dezaten baliabideak beraien esku jartzea. Izan ere, identitate sexuala garatzeko prozesuak, alderdi biologikoak, emozionalak, kognitiboak eta sozialak hartzen ditu bere gain. Hortaz, sexualitatea genitalen onarpen biologikoa eta onarpena bezalako alderdi psikologiko konplexuak uztartzen dituen prozesu bat da (Bardi et al., 2005).

2.2.2.1 Generoan oinarritutako eskola-jazarpena

Eskola jazarpena ikasle batek hezkuntza sisteman jasaten duen jazarpen eta eraso-egoera jarraitu eta ez justifikatua da, min egiteko intentzioarekin burutzen dena eta biktimak baino estatus sozial altuagoa duten ikaskide batek baino gehiagok taldean burutzen dutena (Platero, 2010). Jazarriak, gutxiespenak, irainak, txantxak, iseka, kolpeak eta bestelako eraso fisiko eta psikologikoak pairatzen ditu (Jalon, 2006).

Bada ordea, eskoletan ematen den beste jazarpen mota bat, jazarpen homofobikoa. Plateroren (2010) esanetan, eskola jazarpen homofobikoa biktimaren bazterteza, mehatxuak, irainak eta indarkeria dakartzaten jarrerak errepikakorrek dira, eta botere erlazio ezberdin bat suposatzen du, izan bere berdinen edo pertsona helduen partetik. Jazarpen homofobikoa ez dute soilik orientazio sexual hau dutenek pairatzen, arau normatibotik aldentzen diren horiek ere jasotzen dute.

Egun LGTBIQ+ kolektiboko ikasleek bazterkeria egoerak jasaten jarraitzen dituzte eskoletan, izan ere, Espainiako eskoletan talde hauen barne diren ikasleen biktimizazio, marjinazio eta gaizki ulertu maila handia da, eta hau ikasle hauek erakundearen aldetik behar bezain besteko babesa ez jasotzearen ondorio da (Wilson et al., 2022). Euskal Herrian eginiko ikerketa baten arabera, parte hartu zuten 1748 nerabeetatik lorturiko datuek diote heterosexuala ez den orientazio sexuala duten, eta eskola jazarpena jasaten duten ikasleen ehunekoa %51 eta %57.38 artekoa da (Larrain et al., 2020).

Jarrera hauek, esan bezala, edozein ikasleri gerta dakioken arren, eraso homofobikoak dira ohikoenetako bat. Jesús Generelok (2012) Federacion Estatal de Lesbianas, Gais, Trans y Bisexuales-eko (FELGTB) idazkari nagusiak eginiko ikerketaren arabera, jazarpen mota hau oso goiztiarra izan ohi da, eta ez du beti pertsona horiek homosexualak edo bisexualak izatearekin zer ikusirik, normalean generoari loturiko kanon horretatik aldentzen diren pertsonak pairatzen dute. Jazarpen mota honek nerabezeroaren hasierarekin egiten du bat,

10 eta 16 urte bitartean gertatzen da, eta adinean gora egin ahala ehunekoa handituz doa (Generelo, 2012).

Hezkuntzako partaideen, familien, irakasleen, erakunde legalen... gain dago pixkana egoera honi buelta ematea, eta horretarako ezinbestekoa da ikasleekin errealitate ezberdinen lanketa egitea, genero identitate guztiak baliozkoak direla eta errespetua merezi dutela ikasteko. Irakasleek beraien lana parte hartzetik haratago ikusi behar dute, aldaketaren parte hartzaile aktiboak dira, eta hauen formakuntzaren esku dago norbanakoaren lanketan hasirik aldaketa kolektiboaren parte izatea (Silva-Peña eta al., 2018) Izan ere, txikitatik mezu hori ulertu eta barneratzen badute, beraien inguruan pertsona, bisexual, homosexual, transgenero... bat dagoenean, beraienganako jarrerak neutralak izango dira.

Gainera, errealitate ezberdinak badaudela onartzeak eta hauenganako errespetua lantzeak, ikasle guztiak beraien autokontzeptua hobezaten lagun dezake. Perez eta Garaigordobilen (2004) esanetan, autokontzeptuaren eta gizarteko jarreraren arteko erlazioa aztertzen duten ikerketek diote, autokontzeptu hobea duten ikasleek, jarrera sozial egokiagoak dituztela eta errespetu sozialera laguntzen dutela.

Haurrek beraien burua den bezalakoa maitatzen ikasten badute, dituzten ezaugarri on eta txar guztiekin, besteak ere diren bezalakoa maitatzea errazagoa izango zaie, beraien arteko bizikidetzak hobetuz, eta errespetuan oinarrituriko testuinguru bat osatzen lagunduz.

2.3. Generoaren lanketa Gorputz Hezkuntzan eta irakasleen jarreraren eragina

Azaldutako problematika konpontzeko gakoetako bat, hezkuntzaren aldetik lanketa sakon bat egitea da. Lehenik eta behin, heziketa fisikoaren bitartez, ikasleei baloreak transmititzen zaizkiela azpimarratu behar da. Maria Prat-ek (2004) dioen bezala, modu egokian erabiltzen baldin bada, heziketa fisikoa modu zoragarria da norbanakoaren baloreak (esfortzua, dibertsioa, mugak gainditzea, kreatibitatea, errespetua, diziplina, osasunaren hobetzea...) eta balore sozialak (besteekiko errespetua, talde lana, konpromisoa, partaidetza...) ikasteko.

Myriam Alvarifias-en (2018) esanetan azken urteetan gizon eta emakumeek gizartean duten rola aldatuz joan da eta pixkanaka hezkuntzan genero berdintasuneko politikak txertatuz joan dira, berdintasunean hezteko behar bat sortuz. Baina, berdintasunean oinarrituriko hezkuntzaren helburu hauek ez dira betetzen Gorputz Hezkuntzako klaseetan. Irakasleek, bereziki ezaugarri maskulinoetan zentratzen den curriculum bat bultzatu ohi dute, mutilen behar eta ezaugarri fisikoetan oinarritzen dena.

Aldaketaren aldeko tresna bat izan dadin, Gorputz Hezkuntzako irakasleen aldetik aldaketa bat ematea da gakoa. Egunerokotasuneko sinesmen eta jarrerei modu kritiko batean

begiratu behar zaie, ezkutuko curriculuma eraldatu behar da eta gizarteko sistema hegemonikoa birproduzitzeari utzi behar zaio, aldaketa bultzatzeko (López-Pastor, 2012).

Curriculum ezkutuaren ideari helduz, begirada batek, ahots tonuak, ikasleak taldeetan bereizteko moduak, zeini zoriondu eta zeini zigortzeak, gauzak esateko erabiltzen ditugun hitzen aukeraketak... zuzenean eragingo dute ikasleen jarreran. Lehen Hezkuntzako haurrentzat, irakasleak beraien erreferente dira, eskolan dauden orduetan, egiten den guztia ikusi eta aztertzeaz gain, ikasi eta barneratu egiten dute. Hori dela eta hain da garrantzitsua nola jokutzen den kontrolatzea, eta gizarteko estereotipoak egunerokotasunetik aldentzea.

Helburu hau lortu ahal izateko, egin beharreko lehenengo gauza, genero perspektiba duten material didaktikoak erabiltzea da. Izan ere, genero perspektiba hartzen duten material didaktikoak erabili eta sortzeak gizarteko rol tradizionalen eta estereotipoen haustura ekarriko du (Lleixá, 2020).

Bestetik, ezinbestekoa izango da ikasleen arteko parte hartzea eta material zein espazioen erabilera bidezkoa bultzatzea. Ikerketa ezberdinek, Gorputz Hezkuntzako klaseetan espazioaren antolakuntza edo materialaren erabilera bezalako alorrak generoaren arabera ezberdintasunak dakartzatela diote, gizonezkoek gizartean duten gailentasun rola berresten dutela azpimarratuz (Rodríguez-Navarro et al., 2015).

Eskola jazarpenaren atalean, eraso mota hauek pairatzen dituzten ikasleak gizarteak ezartzen duen normaltasunetik at dauden horiek direla ikusi da. Jazarpenaren hazkundera hezkuntzan, bereziki nabarmentzen da Gorputz Hezkuntzako irakasgaietan, obesitateak eta parte hartze faltak eraginda, ikasleek jasaten duten diskriminazioa handitu egiten da (García, 2010).

Maskulinitate hegemonikoaren barnean, kirolean abila izatea sartzen da, hau da, mutilak indartsuak, gogorrak eta kirolean trebeak izan behar dira, edo gutxienez, kirola egitea gustuko izan behar dute. Eredu horretatik aldentzen diren mutilak ordea, irakasgai honetan agerian geratzen dira, ez baitira trebeak edo ez baitzaie kirola egitea gustatzen. Nesken kasuan, aldiz, kirolean aritzea da feminitate hegemonikoan sartzen ez dena (Carrillo et al., 2019).

Beste behin, etorkizuneko hezitzaileen eskuetan dago dinamika hauekin amaitzea, eta ikasleei nor bere burua maitatzen eta beste ikaskideen errealitatea errespetatzen irakastea. Gorputz Hezkuntzako saioak, ezinbestekoak izango dira horretarako, ezberdintasunak agerian uzten dituzenez, jazarpenaren errealitatearen agertoki aproposa izateaz gain, egoera hauei buelta emateko toki bikainak dira.

2.4. Aurrera begira ditugun erronkak

Malena Costa-k (2006) dio gizon eta emakume izatea kategoriak direla, eta hauen arteko ezberdintasuna soziala dela. Hau da, bi kategoria hauen arteko ezberdintasun fisikoak bakarrik genitela da, eta gainerako ezberdintasunak gizarteak ezartzen dituenak dira.

Hezkidetzak ezberdintasun sozial horrekin amaitu nahi du, genero guztiei aukera eta tresna berdinak eskainiz. Euskal Herriko Bilgune Feminista-ren (2018) hezkidetzaren inguruko definiziora joz:

Bere banakotasun, berezitasunaren arabera, izaera ezberdinak onartuz, generotik at egiten den pertsonen hezkuntza litzateke. Irizpide sexistek barne biltzen dituzten, gizon eta emakumeei egokitutako rol, balore, portaerak e.a. transmititu gabe hezte da. Pertsona autonomoagoak izateko, gure bizitza proiektuen jabe izateko, hurbileko inguruarekin elkarbizitzan eta behar ditugun gaitasunak garatzea ahalbidetzeko helburuekin. Kontzientea den prozesu hezitzailea da eta neska eta mutilen arteko aukera berdintasunean oinarritzen da. Pertsonen garapen integrala lortu nahi du. (9.or)

Balore etiko hauetan oinarrituriko Hezkuntza Sistema bat izatea ezinbestekoa da, sistema hauetan, errealitate, zailtasun eta egoera pertsonal guztiek dute euren lekua. Gizartean presente dauden sexuen arteko bereizketak alde batera utzi eta ikasle guztiei aukera berdinak bermatzen zaizkie, ikasle ororen ikaskuntza prozesu positiboa bermatuz.

Hezkidetzan hezteko behar horri erantzun bat emateko asmotan, “EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetzeta Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023)” plana sortu zen:

Plan honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak euskal hezkuntza-sistemari eta, zehatzago esateko, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapei aurretik aipatutako hezkidetzeta-eskolan urratsak ematen jarraitzeko aukera eskaintzen die. Bertan, berdintasunaren bidean aurrera egiteko beharrezko urratsen kontzeptu-gakoak aurkituko dituzte, baina, halaber, hori errealitate egiteko behar diren material eta tresnak eskainiko dira. (5.or)

Irakasleen aldetik, txikiak diruditen arren, gaur egungo eta etorkizuneko hezkuntzaren artean aldaketa bat eman dadin, haien esku dauden urrats txikiak bermatu behar dituzte. Liburuetan agertzen diren gizon eta emakume garrantzitsuen arteko aldea berdintzen, gizakiaren garapenerako garrantzitsuak izan diren emakume gehiago lantzen, edo hizkuntza sexista eta mikromatxismoak deuseztatzen saiatu behar dira besteak beste.

3. HELBURUAK

Aurreko atalean zehaztutakoak kontuan izanda, bi dira lan honen helburu orokorrak eta bakoitzaren helburu espezifikoak:

1. Zumaiena eskolako generoaren lanketaren errealitatea jasotzea eta horri lotuta egon daitekeen behar soziala zehaztea, irakasleen ikuspegitik.
2. Lehen Hezkuntzako etapan sexu biologikoa, generoaren konstrukto soziala, genero identitatea (eta normatibotik aldentzen dena), aniztasun positiboa, errespetua, hezkidetzatza, eskola jazarpena eta jazarpen homofobikoa bezalako gaiak lantzeko esku-hartze didaktiko bat garatzea, zerbitzu gisa.
 - a. Gorputz Hezkuntzako saioak, mugimenduaz haratago, beste hainbat ikasgai landu eta gai berriak jorratzeko ere baliagarriak direla ikusaraztea.
3. Ikaskuntza-Zerbitzu proiektuaren baitan izandako ikaskuntza-prozesua aztertzea, bereganatutako gaitasun profesionalak zein ikaskuntza pertsonalak identifikatzeko.
 - a. Klaustroa osatzen duten irakasle taldearekin harremantzen ikastea. Kideekin proiektu eta ideiak partekatzen ikastea eta beraien iradokizunetatik ikastea.
 - b. Saioen barnean suertatzen diren ezbehar ezberdinei erantzuna ematen ikastea eta unean uneko inprobisaziorako gaitasuna garatzea. Ikasleen arteko gatazkei, liskarrei eta saioaren funtzionamendu normala oztopatzen duten gertaerei erantzuten ikastea.

4. METODOA

4.1. Testuingurua

Zumaia kostako herri bat da, 9739 biztanle dituena eta bizi kalitate handiko herria da. Herritarren gehiengoak euskaraz hitz egiten du, hau herrian gehien entzuten den hizkuntza da, eta horrek ikasleen eskola mailan eragin zuzena du. Herri aktiboa da, haurrentzat eskolaz kanpoko jarduera mota ezberdinak eskaintzen ditu, piragua, surfa, eskubaloia, futbola, pilota, eta igeriketa besteak beste.

Ikastetxeari dagokionez, Zumaiena Ikastetxea Zumaiako herrian kokaturik dagoen ikastetxea da. Hain zuzen ere, Euskal Herriko Gipuzkoako ipar-mendebaldean. 2018. urtera arte Maria eta Jose Ikastetxea izenez ezagutzen zen. Baina azken urtetako berrikuntza eta aldaketan

ondorioz, Zumaiena Ikastetxea izena hartu du. Titularitate erlijiosoa duen ikastetxea da. Mota guztietako familiei irekita dago eta kalitatezko hezkuntza eskaintzeaz gain, hezkuntza anitza, ez diskriminatzailea eta euskalduna eskaintzen dute, 0-18 urte arteko ikasleentzat. D eredia da ikastetxean eskaintzen dena (Zumaiena Ikastetxea, 2023a).

Ikastetxearen helburu nagusia pertsona burujabeak, akademikoki konpetenteak eta emozioak kudeatzeko gai direnak, gizartearekiko kritikoak, arduratsuak eta konprometituak diren herritarrak heztea da. Horretarako, hainbat balio jarraitzen dituzte: berrikuntza pedagogikoei irekia dagoen hezkuntza eredia, langileen garapen profesionala sustatzea, eragile eta profesional ezberdinekin elkarlana eta familiekin kolaborazio estua, eskola familiaren osagarria izanik (Zumaiena Ikastetxea 2023a).

Ikuspegiari dagokionez berriz, ikastetxe hurbila, eleaniztasunaren sustatzailea, proiektu pertsonalizatu eta berritzailea duena, giza balioetan, hezkidetzan eta bakearen kulturaren oinarritutako gizarte eraldaketa bideratzen duena, bizia, eraginkorra eta pertsonal inplikatu eta etengabeko prestakuntzan duen eskola da (Zumaiena Ikastetxea, 2023a). Ikastetxeak, Konfiantzaren Pedagogia du ardatz. Haur Hezkuntzan espazioaren aldaketak egin ziren orain dela urte batzuk eta Lehen Hezkuntzan ere berrikuntzak egiten ari dira.

Konfiantzaren pedagogiarekin hurrengoa bilatzen du:

Konfiantzaren pedagogia neurozientziak haurren eboluzioari buruz erakutsi duena oinarri hartuta garatutako filosofia da. Hau da, hain zuzen, Dekretuak finkatutako helburuak eta edukiak lantzeko Zumaienen jarraitzen dugun hezkuntza eta heziketa eredia. Ildo honetatik, gurea den lan egiteko modu propioa eratu dugu (metodologia) eta hori aurrera eramateko, tresna eta material jakin batzuez baliatzen gara (ekintzak, espazioak). Ikaskuntza-prozesua puzzle gisa irudikatzen dugu, eta puzzle horretako pieza bakoitza funtsezko elementu bat da: ikasleak, hezitzaileak, metodologia, denboralizazioa, ebaluazioa... Elementu bakoitzak bere garrantzia du eta elkarren arteko kohesioak behar-beharrezkoak dira. Egoera erreal eta esanguratsutik abiatuta, ikaslearen singularitasuna eta bere ezagutza eraikitzen dugu: emozioetatik abiatuz, ikasleen arreta piztea dugu helburu, bakoitzak bere pertzepzio propioa sortu eta barnera dezan eta, ondoren, ikasketa adierazgarria bultzatzeko. (Zumaiena Ikastetxea, 2023b).

Ikastetxea, ikasleak, irakasleak eta familiak osatzen dute. Beraz, esan daiteke ikastetxeak aurrera egin dezan guztien laguntza behar dela. Hau aurrera eramateko hainbat talde daude: gestio taldea, zuzendaritza, HH eta LHko taldeak, Heziketa Bereziko taldea eta zerbitzu orokorretako langileak.

Guraso Elkarteak ere ezinbestekoa da ikastetxearen funtzionamendurako. Ikastetxeko ikasleen guraso taldea da, zuzendaritzarekin harremanetan ikastetxeko hainbat eginkizun betetzeaz gain, ekitaldietan parte hartu eta antolatzeaz ere arduratzen dena.

Instalakuntza ezberdinak daude bertan: areto nagusia, psikomotrizitate gela, gimnasioa, teknologia tailerra, liburutegia, frontoia, kirol eta patio guneak, laborategiak, gela digitalizatuak eta baita erabilera anitzeko gelak ere. Guztiak ikasleen beharretara egokitzeko eginak daude.

Ikastetxeak sorturiko hainbat proiektu dituzte esku artean. Besteak beste, frutaren eguna; bizitza osasuntsua bultzatzeko eta elikadura ohitura egokiak barneratzeko. Irakurle lagun ere ikastetxean dagoen beste proiektu bat da, berdinen arteko ikaskuntza bultzatzen duena. Hauetaz gain, “Agur txupete, agur biberoi, agur mukiak” proiektua, “hazi, bizi, hezi” bizipen tailerra, psikomotrizitate erlazonala eta eskola orduz kanpoko laguntza ere aurrera eramaten dituzte.

Ikastetxeko proiektuez gain, hizkuntzen trataera bateratua ari dira ezartzen ikastetxean. Goraipatu behar da ikastetxean euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa ikasteko aukera dagoela. Esaterako, Lehen Hezkuntzan, hirugarren mailatik aurrera Gorputz Hezkuntzako irakasgaia ingelesez ematen da.

Hizkuntzarekin erlazonaturiko bi filosofia eta lan egiteko modu jartzen dituzte martxan. Lehen Hizkuntza Proiektua, hau “Zumaiena ikastetxean lantzen diren hizkuntzen ikaskuntzari/irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien alderdi guztiak bildu eta haien trataerari koherentzia emango dion egitasmoa da” (Zumaiena Ikastetxea 2023d).

Bigarrena, hizkuntzaren normalizazioa da, honetan, minorizatua dagoen hizkuntzaren ezagutza sustatu nahi da bere erabilera hedatu. Zumaiena eskolaren esanetan, “hiztun kopurua haztea, erabileraren maiztasuna handitzea, erabilera eremu eta funtzio anitzetara hedatzea eta euskararen presentzia areagotzen lagunduko duten erabilera-arau adostuak indarrean jartzea” da gakoa (Zumaiena Ikastetxea 2023e).

Zumaiena Ikastetxean IKT-ak garrantzia handia dute. Gela guztiak ikasleentzat ordenagailuz eta arbel digitzalez hornituta daude, gainera Wi-Fi sarea dago ikastetxe osoan zehar. Honekin bat datoz, Eskola 2.0, “Ikasle bat, ordenagailu bat” programa eta gela ibiltaria. Hain zuzen ere, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan eta Bigarren Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailan ikasle bakoitzak ordenagailu eramangarri bat du bertan jardura ezberdinak burutzeko eta IKT-en bidez ikasteko. Horrela, bikaintasunean aurrerapauso handia egin da, ikastetxeko aldaketak gizartearekin bat datozelako (Zumaiena Ikastetxea, 2023f).

4.2. Parte-hartzaileak

Ikaskuntza-Zerbitzua Zumaiena ikastetxeko 6.B ikasle taldearekin eraman zen aurrera. Ikasle talde honekin astean zortzi orduz egoten nintzenez, konfiantza handiena nuen taldea zen, eta hori dela eta, hautatu nituen. Ikasgela 11, 12 eta 13 urte arteko 20 ikaslek (l) osaturik dago, 11 mutil eta 9 neskez (generoa ikasleek erantzundako galdetegitik atera da) hain zuzen ere.

Ikasle talde anitza da, gaitasun, genero, gorputz, gustu, erlijio, arraza eta kultura ezberdinetako ikasleak topa daitezke. Euskara mailari dagokionez, ikasle guztien maila egokia da, zenbait ikasle Euskal Herrian jaiotak ez diren arren, urte asko daramatzate Zumaian ikasten eta beraien ulermen eta mintzamen maila beste ikasleena bezain ona da.

Irakasleei (Ir) dagokienez, Gorputz Hezkuntzako hiru irakasle ezberdinekin lan egiteko aukera izan dut, eta hiruen metodologia ezberdina den arren, hiruek jartzen dituzte haurren behar eta nahiak ikaskuntza prozesuaren erdigunean. Ikaskuntza-Zerbitzua hiru hauetako batekin batera eraman dut aurrera, izan ere, bera da ikasle talde honen Gorputz Hezkuntzako irakaslea.

Ni neu ere Ikaskuntza-Zerbitzu honen parte hartzaileetako bat izan naiz, izan ere, klaseak gidatu ditudan arren, nire ikaskuntza-prozesu pertsonalaren parte garrantzitsu bat izan da. Horren jarraipena narrazio etnografiko gisako hausnarketaren bidez egin dut.

4.3. Tresnak

4.3.1. Behaketa fitxa

I+Z-n zehar gehien erabili den tresna izan da, izan ere, behaketa fitxaren bitartez joan naiz klaseak dituen behar, interes eta nahiak ikusten, eta honek klaseak ahalik eta gehien moldatzen lagundu nau (ikus 4. eranskina). Behaketan zehar hainbat galdera erabili ditut irizpide:

- Nolakoa izan da ikasleen parte hartze maila?
- Zein nolako erantzuna jaso du ariketak ikasleen aldetik?
- Gehiago jolasten jarraitu nahi zuten ala erraz aspertu dira?
- Galderak eta interesak sortu zaizkie landutakoaren inguruan?
- Nola sentitu dira ikasleak klasean zehar?
- Nola sentitu naiz ni klasea gidatzerako orduan?

- Zerbait aldatuko banu zer izango litzateke? Eta zergatik?

4.3.2. Ikasleen eta irakasleen iritziak ezagutzeko galdetegia

Galdetegiari dagokienez, bi ezberdin prestatu dira, bata ikasleentzat, eta bestea irakasleentzat (ikus 8 eta 9. eranskinak). Ikasleen galdetegiak lau multzotan banaturiko 27 galdera ditu. Honako hauek dira multzo horiek, lehena, galdera orokorrak, bigarrena, sexua, generoa eta genero identitatea, hirugarrena, hezkidetza eta eskola jazarpena, eta laugarrena, Gorputz Hezkuntzako saioak. Irakasleenak berriz, hiru multzotan banaturiko 21 galdera ditu. Multzoak honako hauek dira, lehena, sexua, generoa eta genero identitatea, bigarrena, hezkidetza eta eskola jazarpena eta azkena, Gorputz Hezkuntzako saioak.

Ikasleen galdetegiaren helburua beraien aurre jakintzak zeintzuk diren aztertu eta hauen arabera zerbitzuaren esku-hartzearen klaseak prestatzea izan da. Baina ez da horretarako bakarrik baliatu, zerbitzuaren amaieran, bertan landurikoa zein puntutara arte barneratu duten jakiteko ere baliatu da. Irakasleena aldiz, gaiaren inguruan zenbat ote zakiten jakin eta beraien lan egiteko modua aztertzeke asmotan burutu da.

4.3.3. Errubrikak

Ebaluazio errubrikeri dagokienez, ikasleek bi bete dituzte, bata autoebaluazioa, beraien parte hartze eta gogo maila ebaluatzeko, eta bigarrena Ikaskuntza-Zerbitzuaren zerbitzua ebaluatzeko sorturikoa, bertan eginiko klaseak, interes maila eta irakaslearen gidaritza ebaluatu dira. Amaieran galdera ireki bat ere izan dute, zeinetan zerbitzu gisa eskainitako esku-hartzearen inguruko iritzia galdetzeaz gain, hobetzeko alderdiak aipatzeko eskatu zitzaizen (ikus 5 eta 6. Eranskinak).

4.3.4. Egunerokoa

Saioak burutu ostean, prestatutako ariketak nola irten ziren, denboraren kudeaketa nolakoa izan zen, ikasleen jarrera nolakoa izan zen, gatazkarik sortu ote zen, eta irakasle gisa nire sententzioak nolakoak izan ziren, eta orokorrean saioaren garapena idazten nuen. Bizipen guzti hauek eguneroko formatuan jaso nituen (ikus 7. eranskina) eta horrela pasatuko guztia, ikasleek esandakoa eta nik neuk irakasle gisa biziturikoa sistematikoki jaso, eta esperientzia horietatik ikasteko balio izan zidan. identifikatzeko erabili zen.

Hau oso tresna baliagarria izan da bai nire burua eta nire jarduna ebaluatzeko, eta baita zerbitzuaren nondik norako ezberdinak ebaluatzeko. Epe luzera begira, errazagoa da ongi irtendako edo gaizki irtendako horretaz oroitzea eta detaile txikiak ahaztea. Baina berriro ere zerbitzu hau aurrera eramango banu, sorturiko egunerokoa oso erabilgarria izango litzaidake. Izan ere, zuk bizitu duzuna, zer aldatuko zenukeen edo zein ariketa gustatu zaien

gehien, unean bertan idatziz gero, askoz ere modu errealagoan plasmatu daiteke, eta bizipen horiek irakurtzean ohartzen zara benetan zer aldatu eta zer mantendu behar den zerbitzua geroz eta hobe izan dadin.

4.4. Prozedura eta analisisia

Ikaskuntza-Zerbitzua diseinatzen hasi aurretik, Zumaiako herrian eta orokorrean Lehen Hezkuntzako adinean ohikoa den problematika bat identifikatzen hasi nintzen, izan ere, zerbitzuaren helburua benetako problematika bati erantzuna ematea da. Praktikaldian zehar Gorputz Hezkuntzako klaseetan sartzen nintzenez, ohartu nintzen, eskolak hezkidetzan lan egiten zuen arren, Gorputz Hezkuntzako klaseetan neska eta mutilen arteko ezberdintasunak nabariagoak zirela.

Egoera hori ikusirik, nire buruari galdetu nion ez ote zen patriarkatuak eta gizarteko rol inposatuek eragindako zerbait izango, izan ere, haurrak jolasean libre uzten ditugunean, argi eta garbi ikus dezakegu nola umeez urteetan zehar subliminalik igorri zaizkien estereotipo eta izateko modu markatu horiek errepikatzen dituzten. Honen inguruan gehiago aztertzen jarri nintzen eta sexu, genero eta genero identitatea Gorputz Hezkuntzako alorrean lantzea helburu zuen esku-hartze didaktiko bat sortzeko (ikus 1. eranskina) nahia piztu zitzaidan. Bertan, gaia sakonki lantzeaz gain, modu teorikoan ez ezik, praktikokoan ere landu daitekeela frogatu nahi nuen.

Ikaskuntza-zerbitzua eskola orduetan aurrera eramateko diseinatuta zegoenez, momentuan indarrean zegoen 236/2015 lege-dekretuko Norbera izaten ikasteko kompetentzia landu nahi zen, ikasle guztien ezberdintasunak ikusarazi eta onartzeko, berdinen arteko tratua landu eta normatibotik aldentzen denak ere errespetua merezi dutela ikusteko.

Errespetu eta onarpen hori, kompetentzia honen barnean topa ditzakegun bi alderdi osagarrietan zentratuz landu nahi zen, alde batetik gorputz-irudiaren kontzientzia eta erregulazioa. Hau alderdi fisikoan zentratzen da, eta mutil eta nesken estereotipo nagusiak zeintzuk diren aztertu, eta hautatik aldentzen diren ikasle asko daudela ikusarazi nahi zitzaien. Bestetik, sexu-nortasunaren kontzientzia eta erregulazioa. Honen bitartez, orientazio sexual ezberdinak plazaratu eta hauei merezi zaien lekua eta errespetua eman behar zaiela landu nahi zen.

Behin gaiaren inguruan irakurketa sakona egin eta landu nahi ziren helburuak finkatu ostean,, nire asmoa ikastetxeko zuzendariari azaltzeko unea iritsi zen. Urtarrilaren 30ean GrAILerako gai hau landu nahi nuela eta seigarren mailako ikasleekin lantzea gustatuko litzaidakeela azaldu nion. Zuzendariari oso ideia egokia iruditu zitzaion, izan ere, eskolan

landu nahi zuten gai bat zen eta aukera paregabea iruditu zitzaien. Hortaz, I+Z-ren pauso ezberdinak aurkeztu nizkion eta bere onespena jaso ostean martxan jarri nintzen.

Lehenengo urratsa 6.B ikasgelako ikasleei familiek/tutore legalaren sinatu zezaten baimen bat prestatu eta banatu zen (ikus 3. eranskina). Azalpen labur bat egin nien, eta bertan azaldu nien nola zerbitzuan zehar lorturiko datuak erabili ahal izateko beraien familia/tutore legalaren baimena behar nuen. Baimen horretan noski, beraien anonimotasuna bermatuko zela azaldu nien, hau da, inongo momentutan ez zela beraien argazkirik edo datu pertsonalik argitaratuko.

Baimenak jaso ostean, Otsailaren 13an, zuzendariarekin bildu nintzen eta I+Z-ko datak adosten hasi ginen, nire asmoa Gorputz Hezkuntzako orduetan burutzea zenez, ezer finkatu aurretik Heziketa Fisikoko irakaslearekin hitz egiteko esan zidan. Hori da egin nuen hurrengo pausoa, irakasleari zerbitzuaren nondik norakoak aurkeztu eta bera ados eta prest aurkeztu zenez, data batzuk adostu genituen. Otsailaren 24an data hauek zuzendariari aurkeztu nizkion eta bere onespena jaso ostean martxan jarri nintzen. Prestakuntza osoan zehar emandako pausoak kronograma (ikus 2. Eranskina) baten bitartez bildu ziren.

Zerbitzuko lehenengo saioan, ikasleei nire unibertsitateko tutorearekin batera prestatuturiko Google Forms galdetegi bat pasa nien, gaiaren inguruan zuten jakintza maila bildu eta informazio honekin gainerako saioak prestatzeko. Galdetegi horretan sexua, generoa, genero identitatea, hezkidetza, Gorputz Hezkuntzako saioak, jazarpena eta jazarpen homofobikoari buruz galdetu zitzaien. Esan bezala, bertan lorturiko emaitzen arabera, eta unibertsitateko tutorearen laguntzarekin, 10 orduko iraupena izango zuten saioak prestatzen hasi nintzen.

Ikasleei ez ezik, irakasleei (Ir) ere beste Google Forms galdetegi bat prestatu nien. Bertan landu ziren gaiak ikasleen berdinak izan ziren, sexua, generoa, genero identitatea, hezkidetza, Gorputz Hezkuntzako saioak, jazarpena eta jazarpen homofobikoa, beti ere irakasle baten ikuspuntutik. Galdetegi hau saioekin hasi ginenean bete zuten, Ir1 ek apirilaren 19an, Ir2-k apirilaren 21ean eta Ir3-k apirilaren 23an.

Saioak prestatzen hasi nintzenean, Gorputz Hezkuntzako irakasleari, programazioaren arabera, nire saioak burutuko ziren denbora tarte horretan landuko zen gaia/problematika zein zen galdetu nion. Bere erantzuna, esku pilota eta total training izango zirela izan zen, beraz, hori kontuan hartu nuen saioak prestatzerako garaian. Nire helburu nagusietako bat ikaskuntza egoeran landuko zen gaia, teoriatik haratago, modu praktikoan landu zitekeela eta hau Gorputz Hezkuntzako saioak burutzearekin uztartu daitekeela frogatzea zenez, gaia/problematika errespetatuz prestatu nituen saioak, Gorputz Hezkuntzako saio arruntak

izaten jarrai zezaten. Hortaz, saioak prestatzerako garaian, lotura kurrikularra ere egiten saiatu nintzen, konpetentzia berak lantzen jarrai zezaten.

Behin saioak prestatuak, martxan jarri nintzen, Otsailak 28 eta Martxoak 28 bitartean, saio guztiak burutu genituen. Saio gehienak Gorputz Hezkuntzako saioetan izan ziren arren, teknologien beharra edo galdetegiak betetzea suposatzen zuten klaseak, ikasleen tutoretza saioak baliatuz eraman ziren aurrera. Azken saioan, esan bezala, berriro ere Google Forms bidez egindako galdetegia pasa zitzairen eta bost aste horietan zehar landurikoa barnerratu ote zuten ikusteko balio izan zidan.

Horretaz gain, autoebaluazio eta ebaluazio errubrikak ere bete zituzten, beraien parte hartze edo prestutasun maila baloratzeaz gain, zerbitzuaren inguruko iritziak jasotzeko eta hobetzeko alderdiak zeintzuk ziren biltzeko. Azken ebaluazio hau egitea Ikaskuntza-Zerbitzuen pauso garrantzitsu bat da, izan ere, saioak aurrera eramaten ditugun sortzaileontzat ezinbestekoa da zerbitzuaren baliagarritasuna zenbatekoa izan den identifikatzeko eta egon diren akats edo ahulgunean egoki identifikatzeko.

Analisi hau bi modutan egin zen, alde batetik esan bezala galdetegi eta errubriken bitartez, eta bertan jasotako erantzunak eragiketa estatistiko bitartez bilduz, eta bestetik egunerokoaren bitartez, saioen azterketa kualitatiboa eginez.

5. EMAITZAK

5.1. Zumaiena eta generoaren lanketa: errealitatea, irakasleen ikuspegitik

Gaia kokatzeko, garrantzitsua eta adierazgarria da irakasleek egiten duten kontzeptualizazioa ezagutzea. Sexua, generoa eta genero identitatea definitzerakoan, irakasle parte-hartzaileen % 100k bat egin zuen. Sexua definitzeko, “jaiotzen garen unean ditugun genitalek definitzen dute, arra eta emea bereizten dituen ezaugarri fisikoen multzoa” hautatu zuen. Generoa definitzeko, aldiz, “identitatearekin erlazionaturik dagoen kontzeptu bat da. Hau da, pertsona nola identifikatzen denarekin erlazionatzen da eta ez du zertan genitalekin edo jaiotzen garen sexuarekin bat egin behar”. Eta, genero identitatearen kasuan, “gizakiok generoaren inguruan garaturiko sentimenduari egiten dio erreferentzia.”

Irakasleek 4 genero ezberdin ezagutzen dituztela esan zuten, baina zerrendatutakoak ezberdinak izan ziren kasu guztietan:

Neska, Mutila, Intersexuala. (23/04/19, Ir1)

Bisexuala, heterosexuala, homosexuala, asexuala (23/04/21, Ir2)

Neska, mutila, ez bitarra eta asexuala. (23/04/23, Ir3)

Hezkuntza-arloan murgilduta, hezkidetzak definitu behar izan zuten eta, kasu honetan ere, parte-hartzaile guztiek bat egin zuten: "hezkidetzak, ezberdintasun sozialekin amaitu nahi du, genero guztiei aukera eta tresna berdinak eskainiz". Guztiek adirazi zuten klase ematerako orduan hezkidetzak bermatzen saiatzen direla eta, horretarako, estrategia ezberdinak aplikatzen dituzte:

Izaera guztiak kontuan edukiz. (23/04/19, Ir1)

Berdintasuna sustatzen saiatzen naiz orduero. (23/04/21, Ir2)

Talde mistoak eginez eta ikasle guztiei aukera eta eskubide berdinak bermatuz, generoa dela eta inor baztertu gabe. (23/04/23, Ir3)

Maila pertsonaletik maila instituzionalago batera igarota, irakasleek uste dute Zumaiena eskolak hezkidetzak sustatzen duela, horrela:

Emakumearen aurkako indarkeriaren eguna bezalako egunetan lanketa eginez, adibidez. (23/04/19, Ir1)

Talde bat dago hezkidetzakoa. Egun zehatzak prestatzen ditu: martxoak 8... Bestela, besteok ikasleen arteko gatazketan esku hartzen dugu. Gure jarrera berdintasunera bideratuta dago. (23/04/21, Ir2)

Ikasgela barnean ikasle guztiak berdinean tratatuz, aukera berdinean dituztela berrestuz eta feminismoan oinarrituriko hezkuntza sistemak bultzatuz. (23/04/23, Ir3)

Horri lotuta, jazarpen homofobikoa definitzeko eskatu zitzaizkien eta kasu guztietan sexualitateari eta roleri erreferentzia egin zieten. Dena den, uste dute Zumaiengan ez dela ez eskola jazarpenik ez jazarpen homofobikorik ematen.

Argazki orokorra eta gero, Gorputz Hezkuntzako (GH) saioetan fokua jarri zen. GHko saioetan irakasleek metodologia ezberdinak erabiltzen dituzte: aginte zuzena, parlebas, unitate didaktikoak... Horiek prestatzerakoan, % 66.7k aitortu zuen neska eta mutilen arteko bereizketa egiten duela eta jolasetan parte hartzea ezberdina dela, baina, era berean, % 100k uste du GHko saioak genero berdintasuna lantzeko aproposak direla eta hori modu honetan bideratzen dutela:

Denak nahastuz eta ahalmen mota ezberdinak landuz. (23/04/19, Ir1)

Askotan lantzen ditut kirolean ematen diren egoera ezberdinak, hauek normalizatzen saiatzen naiz. Ikasleak hauek egoki ikusten. (23/04/21, Ir2)

Talde mistoak sortu eta klasean generoa dela eta sortu daitezkeen liskarrak errotik moztuz. (23/04/23, Ir3)

5.2. Lehen Hezkuntzan genero lantzeko esku-hartzea (zerbitzua)

Aurreko egoera abiapuntu izanda, erabaki zen sexua, generoa eta genero identitatean zentratutako esku-hartze bat prestatzea. Izan ere, jaiotzez neska eta mutilen rola finkatzen dira eta horiek Gorputz Hezkuntzako saioetan, bereziki, oso markatuak daude. Izan ere, geroz eta gehiago lantzen den gai bat izan arren, oraindik oso barneraturik dauzkagun hainbat rol eta estereotipo. Horregatik, garrantzitsua da, gazteekin batera, horiek puskatzea eta errespetuzko etorkizun anitzago bat eraikitzea.

Hortaz, hori guztia modu dinamiko zein dibertigarri batean lantzeko saioak diseinatu ziren. 1. eranskinean jasotzen dira esku-hartzea osatzen dituzten saioen xehetasun guztiak: deskribapena, materiala, denbora, taldekatzea eta edukiak. Erabilitako metodologiak anitzak izan ziren: alde batetik, agente zuzena erabili zen, egin beharrekoa azalduz eta ikasleak burutuz, baina, beste alde batetik, erronka ariketak ere aurkeztu zitzaizkien, hauen zereginaren helburua bakarrik aurkeztura.

Diseinuan jasotako proposamena martxan jartzea esperientzia aberasgarria izan zen eta, lanketaz gain, genero ideintitateari buruz hausnartzeko oso baliagarriak izan ziren hainbat eztabaida interesgarri azaleratu ziren edota estereotipoetan oinarritutako imaginario kolektiboa amaitzearen beharra mahai gainean jarri zen:

Borobilean jarririk, gai ezberdinen inguruan hitz egiten ari ginela, oso galdera interesgarri bat atera da eta ikasleetako batek bere inguruan gertatzen den kasu erreal bat azaldu digu. Bera igeriketa talde bateko kidea da eta alboko herriko taldean trans neska bat dago. Berak azaldu du ez duela inolako arazorik neska horrekin, eta guztiz errespetatzen duela bera neska gisa identifikatzea, baina ez dakiela oso ongi bidezkoa den ala ez zakilarekin jaio den pertsona batek nesken kontra jolastea. (23/03/03, egunerokoa).*

Liburuetan begira, nik uste bezala, neska eta mutilen estereotipo nagusiak agertu dira, amaieran bilaketan emaitzak bateratu ditugunean, mutil kopurua neskena baino lau aldiz handiagoa izan da: 44 mutil eta 11 neska topatu dituzte. Horietatik gehiengo nagusia pertsona zuri, argal, eta gazteak ziren. Nesken kasuan, ile luzedunak eta mutilen kasuan ile motzdunak. (23/03/27, egunerokoa).

Ikusi dute nola nahi gabe iruditegi partekatu bat dugun, eta gizarteko rol ezberdinak genero espezifikoekin lotzen ditugun, nola nahi gabe bikote bat irudikatzeko garaian neska eta mutilak marrazten ditugun, nola irakasleak emakume gisa margotzen ditugun edo nola heroiak gizonezko gisa marrazten ditugun. (23/03/07, egunerokoa).

Esku-hartzearen arrakasta eta zerbitzuaren baliogarritasuna ebaluatzeko, ikasleen garapena eta iritziak izan dira kontuan. Ikasleen gehiengoari landutako gaiak interesgarriak iruditu zitzaizkion (% 65). Horregatik, ikasleek proposamenean gogotsu parte hartu zuten (% 90), nahiz eta batzuetan lotsa sentitu (% 85), eta jarrera egokia erakutsi zuten (% 95). Bestalde, esku-hartzea adinerako egokia dela adierazi zuten (% 75), proposamenak dibertigarritzat jo zituzten (% 60) eta beste batzuei gomendatuko liokete (% 85). Horrela, konturatu ziren GHko saioak bestelako gaiak lantzeko ere aproposak izan daitezkeela (% 80).

Oso pozik geratu naiz lorturiko emaitzarekin, berriro ere oso parte hartzaile agertu dira eta horrek asko lagundu du dinamikak aurrera eramaten eta hausnarketa sakonak lortzen. Ikusten da taldea eroso dagoela bata bestearekin eta horrek antzezteko edo lasai marrazteko segurtasuna ematen die. (23/03/07, egunerokoa)

Niri asko gustatu zaizkit lanireren klaseak eta ariketak. Oso dibertigarriak eta interesgarriak iruditu zaizkit. Gainera, ariketa horien bidez asko ikasi dut. (23/04/28, 113)

Gustatu zaizkit baina buruari buelta asko ematen nion eta lotsatu egiten nintzen eta ez nekienean zuri galdetzen nizun. Konfiantza asko ematen didazu eta zuk lagundu egiten didazu. (23/04/28, 19)

Ondo egon da, baina klase batzuetan aspertu egin naiz eta beste ordutan egitea gustatuko litzaidake. (23/04/28, 110).

Orokorrean, gazua berriak beregatu zituztela adierazi zuten (% 90), adibidez hitz edota termino berriak (% 85k). Txikitatik barneratutako estereotipoak erabat ezabatzea oso zaila bada ere, saioak aurrera egin ahala, ikasleen hitz egiteko eta pentsatzeko modua aldatuz joan zen eta mutilek edo neskek fisiko/izaera jakin bat bete beharraren araua zalantzan jarri zuten.

Gustatu zait jakitea sexua eta generoa desberdinak direla (ez nekien). (23/04/28, 15)

Oso ondo pasatu dut, gauza berri asko ikasi ditut jolasen bidez. (23/04/28, 18)

Gainera, ikasleek alde zuzenetik betetako galdetegiaren erantzunak eta esku-hartzea martxan jarri ostean emandakoak alderatzen badira (2. taula), argi ikusten da garapena: saioen

ostean ikasleek sexua, generoa, genero identitatea, hezkidetza eta jazarpen homofobikoa modu zehatzago zein egokiago batean definitzeko gai dira; eta berdintasunean oinarritutako eskubide, aukera, trataera zein parte-hartzearekiko ikuspegia zorrotzu dute. 2. eranskinean 2. taulan jasotakoa modu grafikoan eskaintzen da.

2. taula

Ikasleen erantzunak, esku-hartzea martxan jarri aurretik eta ostean.

Galdera	Erantzuna	Aldez aurretik (%)	Ostean (%)
1. Ba al dakizu zer den sexua?	Bai.	95	100
	Ez.	5	-
2. Ondorengo definizioetatik zein da sexuarekin bat datorrena?	Neskak eta mutilak bereizten dituen ezaugarria da, alua badut neska naiz eta zakila badut mutila naiz.	60	15
	Jaiotzen garen unean ditugun genitalek definitzen dute, arra eta emea bereizten dituen ezaugarri fisikoen multzoa da.	40	85
3. Ba al dakizu zer den generoa?	Bai.	95	5
	Ez.	100	-
4. Ondorengo definizioetatik aukeratu generoarekin bat egiten duena:	Bi genero daude, bat emakumezkoa eta bestea gizonezkoa.	40	20
	Identitatearekin erlazionaturik dagoen kontzeptu bat da. Hau da, pertsona nola identifikatzen denarekin erlazionatzen da eta ez du zertan genitalekin edo jaiotzen garen sexuarekin bat egin behar.	60	80
5. Ba al dakizu zer den genero identitatea?	Bai.	65	35
	Ez.	90	10

6. Ondorengo aukeretatik, aukeratu genero identitatearekin bat egiten duena:	Zein generorekin identifikatzen garen.	85	63.2
	Zein genitalekin identifikatzen garen.	10	5.3
	Gizakiok generoaren inguruan garaturiko sentimenduari egiten dio erreferentzia.	5	31.6
7. Zenbat genero ezberdin ezagutzen dituzu?	2	70	15
	4	15	20
	6	15	65
8. Ba al dakizu zer den hezkidetzak?	Bai.	80	75
	Ez.	20	25
9. Ondorengo definizioetatik zein da hezkidetzarekin bat egiten duena?	Neska eta mutilen arteko berdintasuna.	45	21.1
	Hezkidetzak, ezberdintasun sozialekin amaitu nahi du, genero guztiei aukeraketa tresna berdinak eskainiz.	40	63.2
	Klase emateko modu bat.	15	15.8
10. Zure eskolan hezkidetzak bermatzen dela uste duzu?	Bai.	30	48.4
	Ez.	10	-

	Ez dakit.	60	52.6
11. Zer egiten du Zumaiena eskolak hezkidetzaz sustatzeko?	Neska eta mutilak berdintzat tratatzen ditugu.	15	25
	Ikasle guztiei eskubide berdinak eman.	15	-
	Ez dakit.	35	30
	Erantzun gabe.	35	45
12. Gelako ikaskide guztien aukera eta eskubide berdinak dituzuela uste duzu?	Bai.	85	70
	Ez.	5	5
	Ez dakit.	10	25
13. Etorkizunean lan bat bilatzeko ikaskide guztien lan aukera berdintzat izango dituzuela uste duzu?	Bai.	60	55
	Ez.	15	10
	Ez dakit.	25	35
14. Ba al dakizu zer den eskola jazarpena?	Bai.	90	100
	Ez.	10	-

15. Ondorengo definizioetatik zen da eskola jazarpenarekin bat egiten duena?	Ikasle batek hezkuntza sisteman jasaten duen jazarpen eta eraso-egoera jarraitu eta ez justifikatua da.	95	90
	Eskolan egotera behartua izatea.	5	10
16. Ezagutzen al duzu zer den eskola jazarpen homofobikoa?	Bai.	55	75
	Ez.	45	25
17. Zer da eskola jazarpen homofobikoa?	Homosexuala izateagatik bazterzea, mehatxuak, irainak eta indarkeria dakartzaten jarrerak errepikakorrak dira.	90	-
	Homosexualek gainontzeko ikasleei egiten dieten bazterkeria da.	10	11.8
	Arauetik aldentzen den orientazio sexual, gorputz, jarrera... izateagatik bazterzea, mehatxuak, irainak eta indarkeria dakartzaten jarrerak errepikakorrak dira.	-	88.2
18. Zumaiena eskolan, eskola jazarpena gertatzen al da?	Bai.		10
	Ez.	15	10
	Ez dakit.	85	80
19. Erantzuna baiezkoa izan bada, araua den jarrera, gorputz	Bai.	11.8	5.9
	Ez.	17.6	11.8

edo orientazio sexuala izateagatik izan al da?	Ez dakit.	70.6	82.4
20. Gorputz Hezkuntzako klaseetan, neska eta mutilen arteko bereizketarik ematen al da?	Bai. Emandako argudioak: - Neskei "bronka" gutxiago botatzen zaiela. - Neskei erraztasunak ematen zaizkie.	40	45
	Ez.	60	55
21. Gustura sentitzen zara Gorputz Hezkuntzako saioetan?	Bai.	90	90
	Ez.	10	10
22. Jolasetan neska eta mutilen parte hartzea berdina al da?	Bai.	55	70
	Ez.	45	30
23. Klaseak prestatzerako garaian, ikasgelako aniztasuna eta gaitasun ezberdinak kontuan hartzen dituela uste al duzu?	Bai.	75	90
	Ez.	25	10

Iturria: norberak eginda.

Hala ere, saioen inplementazioan, diseinuan hobetu beharreko alderdiak ere identikatu ziren: jardueren denboralizazioa egokitu, proposamen dinamikoagoak sortzea (GHko saioetako mugimenduetarekin bat egiteko eta ikasleak ez aspertzeko), sortu beharreko materialaren lan-karga neurtu (irakasleek denbora-muga dute), beharrezkoa den materiala aurreikustea (zenbait kasutan gune batetik bestera eramandako materiala ez zen nahikoa izan edota ez zen ongi egokitzen dinamikara).

5.3. Garapen profesionala eta pertsonala (ikaskuntza-prozesua)

Nire GrAL-eko tutoreak I+Z proiektu bat egiteko ideia aurkeztu zidan une beretik jakin nuen aukera paregabea izango zela niretzako. Lan gehiago suposatu duen arren, lanak benetako erabilpena izatea, umeekin zuzenki lan egiteko aukera izatea, eta irakasle baten rola hartzeko aukera izatea izugarria izan da. Esperientziak nire gaitasun profesionalean zein balore pertsonaletan positiboki eragin du.

Hasieran egindako lanketa teorikoa oso interesgarria izan zen eta jorratutako gai ezberdinetan kokatzeko oso baliagarria. Etorkizuneko irakasle bezala, eduki berriak eskuratzeko aukera izan dut eta, era berean, gaiarekiko ikuspegi kritikoa zein sentsibilizazioa indartu dut. Kontzientzia eta konpromisoa.

Gainera, zerbitzua antolatzea eta burutzea erronka handia izan zen niretzat, elkarren arteko lotura duten hainbat saio pentsatu, kurrikularki justifikatu, materiala prestatu eta aurrera eraman behar nuen lehenengo aldia izan zelako. Horretarako, komunikazio-gaitasuna lantzea ezinbestekoa izan zen, bai hezkuntza-komunitatearekin, bai GHko irakaslearekin eta bai ikasleekin. Harremanak estuak izan ziren eta barneratu dut ikasleak ondo ezagutzea gakoa dela proposamen egokiak prestazeko.

Prozesuan zehar beharrezkoa izan zen, tarteka, denboralizazioarekin zein materialekin inprobisatzea eta horrek aukera eman zidan erabakiak hartzeko gaitasuna lantzeko eta momentuari lotutako moldaketak edota egokitzaipenak egiteko estrategiak eskuratzeko. Etorkizunera begira, argi izan behar dut irakasleek duten denbora urria dela, etengabe material berria sortzen ibiltzea ezinezkoa dela eta berrerabili daitezkeen materialak edota errekursoetara jotzeko ohitura landu behar dudala.

Gainera, ugariak izan ez arren, alde aurretik aurreikusi ezin zitekeen gertakari kritikoren bat edo beste kudetu behar izan nuen: ikasleen arteko liskarrak, jolasa ongi ez ulertzea, jolasa ez oso gustuko izatea, denboralizazioa... Berezi gogoan dut ikasleak haserretu eta jarrera desegokia izan zuten egun bat. Saio horretan ezin izan genituen jolas guztiak nahi bezain ongi burutu, baina ikasleekin hitz egin, beraien jarrera desegokia ikusarazi eta saioa

oztopatzen zutela adieraziz, beraien jarrera aldatu eta berriro ere saioaren normaltasuna berreskuratu genuen.

Batzuetan ikasle batzuen jarrerengatik ezin genuen azalpena ongi entzun edo ongi jolastu. (23/04/28, 120).

Azpinarratzekoa da, momentu oro eskolako zuzendariaren, ikasketa buruaren eta irakasleen babesa zein laguntza (jakintza, materialen prestaketa, gatazken ebazpena...) izan nuela eta hori I+Z proiektua garatzeko faktore erraztatzaile bezala izendatu behar da. Batik bat, eskolako espazio ezberdinak erabiltzeko aukera (gimnasioa, patioa, herriko frontoia, kiroldegiko futbol eta eskubaloi zelaiak...) eta GHko irakasleak gertu izatea erabakiorrak izan ziren, dinamiken aniztasuna egokitzea eta eroso eta seguru sentitzea ahalbidetu zutelako, proposamena aurrera eramateko gai sentitzeko gakoak.

Horrez gain, ikasleak ere faktore erraztatzaile garrantzitsu bat izan ziren. Lehenengo unetik azaldu nien saio hauek zertarako ziren eta niretzako oso garrantzitsuak zirela, eta une oro izan zuten hori presente. Jolasa gutxiago gustatuta ere, parte hartzen eta ahalik eta dinamikoen egiten saiatu ziren eta horrek klaseko dinamika azkarragoa izan zedin lagundu zuen.

Azkeneko jarduera izan da gutxien gustatu zaiena, izatez mimika jolasa ez zaie gehiegi gustatzen eta zenbait kasutan ez zekiten oso ongi nola lortu irakasleak esandako hori interpretatzea. Hala eta guztiz ere, oso fin aritu dira lanean eta beti bezala parte-hartze maila handia erakutsi dute. Azkeneko minutuetan egiten dugun hausnarketa unean ere ez naiz beraiei tiraka ibili behar izan eta inongo arazorik gabe plazaratu dute zer gustatu zaien eta zer ez. (23/03/14, egunerokoa).

Ohikoa den bezala, zerbitzuaren ideiarekin hasi, eta aurrera eraman nuen arte sentituriko sentimendu eta bizipenak askotarikoak izan ziren: nik uste nuen hori beteko ote zen, edo nire zerbitzuak zentzurik izango ote zuen bezalako etengabeko; ikastetxearen prestutasunarekin batera sentitutako lasaitasuna eta motibazioa; sortu beharreko irudi, jolas, eta material osagarri kopurua handiaren ondorioz jasandako estresa (bazkal ordu asko sartu behar izan nituen dena nik nahi nuen bezala prestatu ahal izateko, baina, inongo zalantzarik, gabe merezi izan zuen); ikasleak, irakasleak eta ikastetxeko beste kide guztiak ezagutu bezala, eta nigan zuten konfiantza ikusirik, zerbitzua aurrera eramateko gogoak; lehenengo momentuetako ezinegona eta dinamikak aurrera egin ahala lortutako oreka-sentsazioa; nire ideia ikasleei azaldu eta gehiengoaren jarrera oso positiboa izan zenean sentitutako poza. Ez zen erraza izan zerrendatutako guztiak egoki kudeatzea, baina estrategi ezberdinak aplikatuz, lortu nuen.

Oso ikasle jator eta parte hartzaileak izan ditut eta horrek dinamiketan laguntzeaz gain, niri ere seguruago eta erosoago sentitzen lagundu dit, ez naiz inongo momentutan blokeatua edo gainditua sentitu eta horrek nik ere ikasleekin batera disfrutatzea eragin du. (23/03/28, egunerokoa.)

Zerbitzua amaitutakoan, oso pozik eta nire buruaz harro sentitu nintzen. Etorkizuneko irakasle gisa, zerbitzu oso bat diseinatu, teorikoki justifikatu eta aurrera eramateko gai izatea lorpen handia iruditu zitzaidan, eta amaieran lorturiko emaitzarekin oso pozik geratu nintzen. Ikasle zein irakasleengandik lorturiko feedback-a oso positiboa izan zen eta hori zen nik behar nuen guztia, ikasleek une on bat pasatu izana eta modu ludiko batean gauza berriak ikasi izana.

6. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

Marko teorikoaren atalean aipatu bezala, I+Z bat izan dadin, faktore ezberdinak bete behar dira. Ematen den ikaskuntza eta zerbitzu maila gehiago edo gutxiago lantzen direnaren arabera, ekintzak lau koadrantetan sailka daitezke: komunitate zerbitzuak, ikaskuntza zerbitzuak, inizatiba solidario asistematikoak eta landako lana (Tapia, 2007).

Nire kasuan, bai zerbitzu eta bai ikaskuntza mailak altuak zirenez, Ikaskuntza-Zerbitzu bezala sailka daiteke. Bi faktore hauek sakonki lantzea ezinbestekoa iruditu zitzaidan, ez bakarrik teorikoki I+Z-bati zegokiona betetzeko, baizik eta ikasleek funtzio erreal bat ikus zezaten nire saioetan. Zenbait ikasleen familietan, homosexualak, bisexualak... orientazio eta genero identitate ezberdineko kideak daude, eta ikasle horiek normaltasunez ikusten dituzte hauek, baina beste askorentzat, ez da beraien errealitatean, egunerokotasunean, ikusten duten zerbitzuak. Horregatik, funtsezkoa da hauen presentzia onartu eta errespetatzen ikastea.

Saioak prestatzerako unean, beharra argi izan, eta honi erantzuna emango dioten jarduerak prestatzeaz gain, lotura kurrikularra ere egin behar da, hau da, ez da soilik lanketa bat pentsatzea baizik eta lanketa hori konpetentzia ezberdinekin lotu behar da ikaskuntza prozesua are aberasgarriagoa izan dadin. Rafael Mendiak (2012) dioen bezalaxe, I+Z-k oinarritzko konpetentziak lantzeko tresna bikainak dira. Lotura honek, maila akademikoan, izugarritzko aberastasuna ematen dio zerbitzuari, izan ere, ikastetxeentzako oso garrantzitsua da eskolan egiten diren ekintza ezberdinak balio erreal bat izatea.

Aprentatze-Serveik (2016) dionaren arabera, esan daiteke proposamen metodologiko honek bi prozesu mota batzen dituela, alde batetik jakintza kurrikularrak eta praktika, eta bestetik komunitateari egingo zaion zerbitzu bat. Hauek, proiektu bakar batean lotu behar dira, inguruko behar errealekin lan egin eta hobetzeko asmotan.

Prozesuarekin amaitzeko, lorturiko emaitzak, ebidentziak, frogak... bildu behar dira, horrela ikasleek egin duten lanaren emaitza ikusi ahal izango dute. Eta amaitzeko, ikasitakoa, klasean landuriko teoriarekin lotu behar da, ikasleak jakintza hauen baliagarritasuna ikusteko.

Nire kasuan, hasiera batetik argi izan nituen lortu beharreko helburuak zeintzuk izango ziren, alde batetik generoa, sexua, genero identitate eta eskola jazarpenaren gaiak lantzea eta bestetik Gorputz Hekuntzako saioak erabiltzea honetarako, izan ere, saio hauek kirola egitearekin bakarrik erlazionatu ohi dira, baina horretarako baino askoz gehiagorako baliatu daitezkeela erakutsi nahi nuen.

Zorionez, saioak sortu eta aurrera eramanean, nik uste nuen guzti hori bete egiten zela ikusi ahal izan nuen. Ikasleekin lan eginez, ikusarazi ahal izan nien gizarteak uneoro bidaltzen dizkigula zeharkako mezuak, mutil edo neska gisa identifikatzen garenaren arabera, nola jokatu, nola jantzi, nola hitz egin eta besteekin nola erlazionatu behar garen esaten, eta inposatzen digutenak. Gizarteko molde zurrunetan, kanon hegemonikoekin nola bat egin esaten digutenak. Mezu horiek, txikitatik jasotzen ditugunez, oso barneratuak ditugula eta oso zaila dela zerbitzu edo esku-hartze bakar batean buelta ematea.

Hori gutxi balitz, beste hainbat lanketa egiteko aukera ere izan genuen, ikasleek bi genero soilik zeudela uste zuten, eta jolasen bitartez genero mota eta genero identitate gehiago daudela, eta sexua eta generoa gauza ezberdinak direla ikasi zuten. Gainera, identitateez gain, gizartean topa ditzakegun sexualitate ezberdinak lantzeko aukera ere izan genuen.

Lan honekin lorturiko ikaskuntza-pertsonala ere izugarria izan da. Helburuak idazterako unean finkaturiko helburu pertsonalak guztiz bete ditudala esango nuke. Izan ere, hasierako momentutik proiektu berezia izan zen hau, behar erreal bati erantzuna emateko aukera izateaz gain, irakasle rolean jartzeko aukera ere eman zidalako. Urrats guztietan ikasi dut etorkizuneko irakasle gisa oso baliagarria izango zaidan zerbait. Gaur egungo gizarteak pairatzen duen problematika bat oinarri izanik, zerbitzuak benetako helburu bat izateaz gain, aurrera eramango duzun pertsonengan eragin zuzen bat izatea dakar.

Irakasle modura ere, 10 orduko zerbitzu bat aurrera eramatea oso aberasgarria da, ikasleekin lan egiten, momentuan bertan suertatu daitezkeen arazoei aurre egiten eta ikasle talde espezifiko baten beharretara egokitzen ikasten duzulako. Pertsonalki, 6.B ikasle taldearekin sorturiko lotura oso berezia zain da, praktiketako neska izateaz haratago, beraien bidelagun bilakatzeko aukera izan dut, eta azken praktikaldia izanik, etorkizunean irakasle izan nahi dudala ziurtatzeko balio izan dit.

Saioen prestaketak, eskolako orduetatik kanpo duen lan kargaz ohartzeko ere oso baliagarria izan da, izan ere, material berria sortu beharrak, ordu eta lan kantitate handia eskatzen du, izan bilaketak egiten, informazioa batzen, kartulinak sortzen edo materiala plastifikatzen. Ziur nago, etorkizun hurbil batean, irakasle gisa beste zerbitzu bat prestatu eta aurrera eramaterako unean hau kontuan izango dudala, izan ere, irakasleek ez dituzte lan ordu gehiegi material prestaketei eskaintzeko.

Nire kasuan oso gustura sentitu naiz bai Ikaskuntza-Zerbitzua prestatzen eta baita aurrera eramaten ere. Irakasleak zer landuko genuen azaldu nien unetik oso prest eta gogotsu azaldu ziren. Dinamikak egiten genituen bitartean, nahiz eta batzuk aspergarriagoak edo motelagoak izan, beti mantendu zuten parte hartze maila egokia eta nireganako errespetua itzela izan da. Klase guztietan bezala eztabaida edo gatazka txikiak egon dira, baina hauek ez dute eragotzi klasea normaltasunez aurrera eramatea.

Irakasleek gain, eskola bera ere nire asmoa aurkeztu nien unetik laguntzeko prest egon da, Gorputz Hezkuntzako orduetaz gain tutoretzak ere behar izan ditudanean ez dute inongo arazorik izan, eta klaseak presatzeko edo materiala sortzeko laguntza behar banuen ere hor zeuden esku bat botatzeko prest. Izatez ikasleekin bizitu dudan esperientzia positiboa izan bada ere, ez litzateke posible izango eskolako laguntzarik gabe. Irakasleak, ikasleak eta zuzendaritza, denak egon dira nire beharretara egokitzeko prest eta hori izugarritzko laguntza izan da.

7. MUGAK ETA HOBETZE PROPOSAMENAK

Etorkizunari begira, Ikaskuntza-Zerbitzua berriro ere errepikatuko banu, gauza pare bat aldatuko nituzke. Azken egunean pasaturiko errubriketan zenbait ikaslek, klase batzuetan aspertu egin zirela aipatu zuten, beraz, ariketa guztiak zerbait dinamikoagoak bilakatzen saiatuko nintzateke. Kontuan izan behar dugu ikasleentzat Gorputz Heziketako orduak, jolas eta kirolarekin erlazionaturik daudela, eta hori dela eta, ezinbestekoa dela ariketa dinamikoak sartzea.

Ondo egon da baina klase batzuetan aspertu egin naiz eta beste ordutan egitea gustatuko litzaidake. (23/04/28, 110).

Klase batzuk oso aspergarriak eta astunak ziren, nahiago nuke gimnasia egitea. (23/04/28, 12)

Horretaz gain, zenbait unetan, denboraren kudeaketarekin arazoak izan nituen, ariketa batzuk, nik uste baina laburragoak izan ziren, eta beste batzuetan aldiz, azalpenak emateko edo ikasleek ariketak prestatu ahal izateko pentsatu baina denbora gehiago behar izan zuten eta ez nuen ariketa nik bezain ongi burutu.

Saio bakoitzaren amaieran eginiko hausnarketa uneak ere luzatu egingo nituzke. Saio guztietan aurrera eraman nuen arren, zenbait kasutan ikasleek azken uneko zalantzak edo proposamenak azaltzen zituzten eta denbora zela eta, azken minutuetan egiteagatik, ezin izan nien beraien proposamenei behar bezain besteko arreta prestatu.

Amaitzeko, bereziki lehenengo saioari praktikoari begira, klasea hasi aurretik, ingurua ongi ezagutzen saiatuko nintzateke, gunearen dimentsioak, lur mota, akustika... Nire kasuan Zumaia herriko udal pilotalekuan eraman nituen aurrera saio gehienak, eta lekuak hainbat arazo eman zizkidan. Alde batetik, bertan dagoen akustika nahiko txarra da eta azalpenak ematen ari zaren bitartean beste norbaitek hitz egiten badu, sortzen den erreberberazioak ulermena oztokatzen du. Zorua bera ere, oso lehuna denez, lurrian jarririko txartel plastifikatuak hartzea zaildu egiten du, eta zenbait unetan ikasleek zailtasunak izaten zituzten ariketak burutzeko.

Nire ikaskuntza-prozesuari dagokionez, honek ere hobetzeko hainbat alderdi izan ditu. Gauza asko ikasi ditudan arren, zenbait unetan oso bakarrik sentitu naiz, nigan hartu dut saioak prestatzeko karga guztia eta ez ditut nire ideiak beste irakasleekin partekatu. Etorkizunean, nire irakasle kideei nire asmoak azaldu eta beraien ikuspuntua eskatuko diet, izan ere, gerta liteke beraien ikasle taldea nik baina hobeto ezagutzea eta jardueren inguruko hainbat iradokizun izatea.

Bestalde, saioak aurrera eramateko behar dudan materiala ahalik eta gutxien izan dadin saiatuko nintzateke. Zerbitzu honen kasuan, praktikaldien barnean izan denez, materiala prestatzeko nahiko denbora izan dut, baina etorkizunean, irakasleek dituzten ordu libre kopuru murriztarekin, ia ezinezkoa litzateke saio eta proiektu guztietarako hainbeste material ekoiztea, lan karga altuegia litzateke.

8. BIBLIOGRAFIA

236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 141, 2016ko urtarrilaren 15a, 1-280 orrialdea. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_heziberri_dec_curriculares/eu_d ef/adjuntos/OH_curriculumosoa.pdf

Aguilar, T. (2008). El sistema sexo-género en los movimientos feministas. *Amnis: Revue de Civilisation Contemporaine de l'Université de Bretagne Occidentale*, bol (8), 10 or.

Alvariñas-Villaverde, M., eta Pazos-González, M. (2018). Estereotipos de género en Educación Física, una revisión centrada en el alumnado. *Revista electrónica de investigación educativa*, bol 20(4), 154-163 or.

Aramburuzabala, P., Cerrillo, R. eta Tello, I. (2015). Aprendizaje-servicio: una propuesta metodológica para la introducción de la sostenibilidad curricular en la universidad. Profesorado. *Revista de curriculum y formación del profesorado*, bol 19(1), 79-95 or.

Aprentatze-Servei. (2016). Què és l'APS? 2018ko Azaroaren 25ean berreskuratua honako webgune honetatik: <http://www.aprentatgeservei.org/index.php?cm=02>

Azúa-Menéndez, M. D. J., & Pincay-Parrales, E. G. (2019). El juego: Actividad lúdico-educativa que fomenta el aprendizaje significativo de operaciones básicas matemáticas. *Dominio de las Ciencias*, bol 5(1), 377-393 or.

Baggini, E. (2008). Aportes a la teoría del aprendizaje. Formulación de una situación áulica concreta. *Año I*, 14.

Batlle, R. (2011). ¿De qué hablamos cuando hablamos de aprendizaje-servicio? *Revista Crítica*, bol (972), 49- 56 or. <https://philpapers.org/rec/BATDQH>

Batlle, R. (2015). *Guía práctica de aprendizaje-servicio*. Santillana Educación.

- Battle, R. (2018ko abenduak 5). ¿Cómo desarrollar un proyecto de aprendizaje-servicio? <https://es.slideshare.net/rbattle/como-desarrollar-un-proyecto-de-aprendizajeservicio-87247008>
- Bardi, A., Leyton, C., Martínez, V., & González, E. (2005). Identidad Sexual: proceso de definición en la adolescencia. *Reflexiones pedagógicas*, bol (26), 43-51 or.
- Burggraf, J. (2001). *¿Qué quiere decir género? Un nuevo modo de hablar*. Promesa.
- Beltran-Carrillo, V., & Devís-Devís, J. (2019). El pensamiento del alumnado inactivo sobre sus experiencias negativas en educación física: los discursos del rendimiento, salutismo y masculinidad hegemónica. *RICYDE. Revista Internacional de Ciencias del Deporte*, bol 15(55), 20-34 or.
- Cruz, M. A., eta Oyarce, M. L. (2018). Familias homoparentales: ¿Reproducción o transgresión del género hegemónico? *Revista Punto Género*, bol (09), 85-105 or.
- Deaux, K. y Lewis, L.L. (1984). Structure of gender stereotypes: interrelationships among related behavior. *Psychological Review*, bol (94), 369-389 or.
- Díaz-Aguado M. J. (2006). Sexismo, violencia de género y acoso escolar. Propuestas para una prevención integral de la violencia. *Revista de estudios de juventud*, bol (73), 38-57 or.
- Euskaltzaindia. (d.g.). *Euskaltzaindia*.
https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegia_bilatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu-ES&non=sarreraBuruaStrict&query=sexu
- Euskal Herriko Bilgune Feminista (2018). *Hezkidetza gida*. Euskal Herriko Bilgune Feminista.
- Fernández de Castro, P. (2012). El camino hacia la transversalidad de género, el empoderamiento y la corresponsabilidad en las políticas de igualdad de género. *Revista de Filosofía, Derecho y Política*, bol (16), 79-104 or.
- García, J.N. eta Conejero, M.A. (2010). Obesidad ¿diferencia o acoso? Educación física ¿problema u oportunidad? *Trances*, bol 2(2), 430-453 or.
- Gallardo, F. J., & Escolano, V. M. (2009). *Informe Diversidad AfectivoSexual en la Formación de Docentes: Evaluación de contenidos LGTB en la facultad de C.C.E.E. de Málaga. (2. Edizioa)*. Editorial CEDMA.

- Generelo, J. (2012). Informe de resultados de la investigación: "Acoso escolar homofóbico y riesgo de suicidio en adolescentes y jóvenes LGB". *España: Colectivo de Lesbianas, Gays, Transexuales y Bisexuales de Madrid y Federación Estatal de Lesbianas, Gais, Transexuales y Bisexuales*.
- Herrera, F., Aguayo, F., & Weil, J. G. (2018). Proveer, cuidar y criar: evidencias, discursos y experiencias sobre paternidad en América Latina. *Polis. Revista Latinoamericana*, bol (50), 1-12 or.
- Lamas, M. (1996). La perspectiva de género. *Revista de Educación y Cultura de la sección*, bol (47), 216-229 or.
- Lamas, M. (2015). *El género*. Bonilla Artigas Editores.
- Lleixà Arribas, T., Soler i Prat, S., & Serra, P. (2020). Perspectiva de género en la formación de maestras y maestros de Educación Física. *Retos. Nuevas tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, bol (37), 634-642 or.
- Larrain, E., & Garaigordobil, M. (2020). El bullying en el País Vasco: prevalencia y diferencias en función del sexo y la orientación sexual. *Clínica y Salud*, bol 31(3), 147-153 or.
- Listur, R. (2019). *Exclusión social de adolescentes LGTB: las instituciones educativas, ¿salen del armario?*. (Grado amaierako lan argitaratu gabea). Universidad de la república de Uruguay, facultad de psicología. Uruguay.
- López-Pastor, V. M.; Garcia-Peñuela, A.; Pérez, D.; López, E. & Monjas, R. (2004). Las historias de vida en la formación inicial del profesorado de Educación Física. *Revista Internacional de Medicina y Ciencias de la Actividad Física y del Deporte*, bol 4(13), 45-57 or.
- Maccoby, E., Ivars, A., eta Unamuno Adarraga, M. (1972). *Desarrollo de las diferencias sexuales*. Marova.
- Martinez T. (2020). Haciendo frente a las epistemologías heteropatriarcales: elementos teórico-metodológicos para un análisis feminista de la violencia contra las mujeres. *Investigaciones Feministas*, bol 11(2), 333-342 or.
- Mendía, R. (2012). El Aprendizaje-Servicio como una estrategia inclusiva para superar las barreras al aprendizaje y a la participación. *Revista de Educación Inclusiva*, bol 15(1), 71-82 or.

<https://redined.educacion.gob.es/xmlui/bitstream/handle/11162/228606/Mend%C3%A9Da.pdf?sequence=1>

Perez J. I., eta Landazabal, M. (2004). Relaciones de la socialización con inteligencia, autoconcepto y otros rasgos de la personalidad en niños de 6 años. *Apuntes de psicología*, bol 22(2), 153-169 or.

Platero, L. (2010). Sobrevivir al instituto y la facultad: voces y vivencias sobre la heteronormatividad, la homofobia y la masculinidad de las chicas. *Revista de Estudios de Juventud*, bol (89), 39-58 or.

Prat, M., Font, R., Soler, S., & Calvo, J. (2004). Educación en valores, deporte y nuevas tecnologías. *Apunts. Educación física y deportes*, bol 4(78), 83-90 or.

Puig Rovira, J. M., Gijón Casares, M., Martín García, X., & Rubio Serrano, L. (2011). Aprendizaje-servicio y Educación para la Ciudadanía. *Revista de Educación, número extraordinario 2011*, 45-67 or.

Rich, A. (1998) *Nacemos de mujer: la maternidad como experiencia e institución*. Cátedra.

Rodríguez Menéndez, M., & Peña Calvo, J. (2005). Identidad de género y contexto escolar: una revisión de modelos. *Revista española de investigaciones sociológicas (REIS)*, bol 112(1),165-194 or.

<https://www.ingentaconnect.com/contentone/cis/reis/2005/00000112/00000001/art00005?crawler=true>

Silva-Peña, I., Hormazábal-Fajardo, R., Guíñez-Gutiérrez, C., Quiles-Fernández, E., eta Ramírez-Vásquez, P. (2018). Explorando las relaciones de género en la escuela: Indagaciones narrativas para la justicia social. *Reflexiones y experiencias educativas desde las comunidades. Investigación en educación para la justicia social*, bol (4), 79-94 or.

Tapia M.N (2017). Cómo desarrollar proyectos de aprendizaje y servicio solidario en la educación inicial y primaria. CLAYSS.

https://www.clayss.org.ar/uruguay/1_Inicial-Primario.pdf

Teijeira, E. (2016). Aprendizaje-Servicio, una metodología que funciona. *Revista digital de la Asociación CONVIVES*, bol (16), 5-11 or.

Wilson-Daily, A. E., Sebares-Valle, G., Sabido-Codin, J., & Feliu-Torruella, M. (2022). LGTBIQ+ en el instituto: revisando experiencias pasadas desde una perspectiva de

género. *REIDICS. Revista de Investigación en Didáctica de las Ciencias Sociales*, bol (11), 68-84 or.

Zumaiena Ikastetxea (2023a). *Zumaiena*. <https://zumaiena.eus/nortasuna/>.

Zumaiena Ikastetxea (2023b). *Zumaiena*. <https://zumaiena.eus/konfiantzaren-pedagogia/>.

Zumaiena Ikastetxea (2023d). *Zumaiena*. <https://zumaiena.eus/hizkuntza-proiektua/>.

Zumaiena Ikastetxea (2023e). *Zumaiena*. <https://zumaiena.eus/hizkuntza-normalkuntza/>.

Zumaiena Ikastetxea (2023f). *Zumaiena*. <https://zumaiena.eus/ikt/>.

9. ERANSKINAK

1. ERANSKINA. SAIOAK

1. eguna.


Izenburua: Zenbat dakit sexu, genero eta genero identitatearen inguruan?	
Deskribapena	<p>Saioarekin hasi aurretik, Gorputz Hezkuntzako saioetan zehar egingo diren jardueren dinamikak eta nondik norakoak azalduko zaizkie. Aipatuko zaie egingo diren ariketak sexua, generoa, genero identitatea, eskola jazarpena... landuko dituela gorputzaren mugimendu eta jolasarekin uztarturik.</p> <p>Ondoren, ordenagailuetan Googleforms aukera bidez sortutako galdetegi bat betetzeko eskatuko zaie beraiek dakitenarekin erantzun dezaten, aurretiko informaziorik gabe.</p> <p>Galdetegiarekin hasi aurretik azalduko zaie erantzunak anonimoak izango direla eta bilduko diren datuak irakaslearen GrALeko lanean erabiliak izango diren arren, beraien izen edo egoera pertsonalak ez direla inongo momentuan aipatu edo argitaratuko.</p> <p>Amaitzeko, saioen inguruan espero dutena eta gaiak nola sentiarazten dituen galdetuko zaie, ikaslegoaren prestutasuna eta parte hartze maila ikusteko.</p>
Materiala	Google galdetegia.
Denbora	60 minutu.
Taldekatzea	Bakarkakoa.
Edukiak	<p><i>Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia:</i></p> <p>2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea</p> <ul style="list-style-type: none">- Harreman interpertsonaletan nahiz hezkuntza-esparruan sortu ohi diren komunikazio-egoeretan parte hartzea eta kooperatzea.- Ahozko interakzio-egoeretan nagusi diren arauak aintzat hartzea: hitz egiteko txanda, gaiari loturik hitz egiteko mekanismoak, besteen iritziekiko errespetua, kortesia- arauak...- Ahoz modu proaktiboan eta konfiantza osoz aritzearen aldeko interesa izatea.- Solaskideen hizkuntza-erabilerekiko errespetua izatea. <p>3. MULTZOA. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea</p> <ul style="list-style-type: none">- Idatzizko testuen ekoizpen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta transferitzea.- Idatziz modu proaktiboan eta konfiantza osoz espresatzearen aldeko

	interesa izatea.
--	------------------

2. eguna.

Izenburua: Egia ala gezurra.	
Deskribapena	<p>Ariketarekin hasi aurretik, argitu behar da, ikasleek ez dutela aurretiko inolako informaziorik jasoko, beraien aurre ezagutzetatik abiatu erantzungo dutela, ikaslegoaren jakintza maila nolakoa den aztertzeko erabiliko bait da jolasa.</p> <p>Saioa aurrera eramateko erabiliko den ingurunea, Zumaia herriko frontoi publikoa da. Jolasarekin hasteko, frontoiko marra bat baliatuko da eremua bitan banatzeko, frontoiaren alde bat “Egiaren aldea” izango da eta bestea “Gezuraren aldea”.</p> <p>Ikasleak marraren gainean kokatuak egongo dira begiak estalirik besteek zer erantzuten duten ez ikusteko eta libreki erantzuteko. Irakasleak adierazpen bat egiten duenean, egia ala gezurra den aukeratu beharko dute, uste dutenaren arabera, eremuaren alde batean edo bestean kokatuko dira. Ondoren, begiak ireki eta erantzunaren zergatia azalduko dute, beste aldean daudenei beraien ikuspuntua azalduz eta beraien jakintzak islatuz.</p> <p>Adierazpenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bi genital mota daude, alua eta zakila. - Dugun genitalaren arabera neska edo mutila izango naiz. - Generoa genitalek ezartzen dute. - Sexua eta generoa gauza bera dira. - Orientazio sexual ezberdinak daude. - Trans* pertsonak ezin dira homosexualak izan. - Trans* izateko, heldua izan behar zara, ezin duzu txikitatik jakin. - Denak heterosexualak jaiotzen gara. <p>Jolasaren emaitzak erregistratzeko, taula bat sortuko da, bertan ikasle bakoitzaren deiturak eta erantzun dutena gordeko dira. Taula ikusteko joan 1. eranskinera.</p>
Materiala	Ez da materialik behar.
Denbora	20 minutu.
Taldekatzea	Talde osoa.
Edukiak	1. MULTZOA. Eduki komunak. Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.

IKASLEA	1. ADIERAZPENA		2. ADIERAZPENA		3. ADIERAZPENA		4. ADIERAZPENA		5. ADIERAZPENA		6. ADIERAZPENA		7. ADIERAZPENA	
IKASLEA 1	E	E	G	E	G	G	G	E	E	G	G	G	E	G
IKASLEA 2	E	E	G	G	G	E	E	E	G	G	G	G	G	G
IKASLEA 3	E	E	G	G	G	G	E	E	G	G	G	G	E	G
IKASLEA 4	E	E	G	G	G	G	E	E	G	G	G	G	G	G
IKASLEA 5	E	E	G	G	G	G	E	E	G	G	E	G	G	E
IKASLEA 6	E	E	G	G	G	G	E	E	G	G	G	G	G	G
IKASLEA 7	E	E	G	G	G	G	E	E	G	G	G	G	G	G
IKASLEA 8	E	E	G	G	G	G	E	E	G	G	G	G	G	G
IKASLEA 9	E	E	G	G	G	G	E	E	G	G	E	G	G	E
IKASLEA 10	E	E	G	G	G	G	E	E	G	G	G	G	G	G
IKASLEA 11	E	E	G	G	G	G	E	E	G	G	G	G	G	G
IKASLEA 12	E	E	G	G	G	G	E	E	G	G	G	G	G	G
IKASLEA 13	E	E	G	G	G	G	E	E	G	G	G	G	G	G
IKASLEA 14	E	E	G	G	G	G	E	E	G	G	E	G	G	G
IKASLEA 15	E	E	G	G	G	G	E	E	G	G	G	G	G	G
IKASLEA 16	E	E	G	G	G	E	E	E	G	G	G	G	G	G
IKASLEA 17	-	E	-	G	-	G	-	E	-	G	-	G	-	G
IKASLEA 18	E	E	G	G	G	G	E	E	G	G	G	G	G	G
IKASLEA 19	E	E	G	G	G	E	E	E	G	G	G	G	G	G
IKASLEA 20	E	E	G	G	G	G	E	G	G	G	G	G	G	G

Izenburua: Definizioak aurkezten.	
Deskribapena	<p>Ikasleak talde handian jarriko dira eta esku-pilotako pilota bat izango dute. Azalduko zaie, beraien helburua denen artean, akatsik egin gabe 40 tantoetara iristea izango dela, eta 40ra iritsi aurretik, gutxienez ikasle bakoitzak behin jo beharko diola pilotari.</p> <p>Helburua lotzen duten bakoitzean, gai bat “desblokeatuko” dute, hau da, saioetan zehar landuko duten gai bat landu ahal izango dute. Gai bakoitza desblokeatzen dutenean, irakasleak azalpen bat emango du honen inguruan, zer den azalduz eta beraiekin honen inguruan zer dakiten, zer uste duten, inguruan ikusten ote duten ala zenbait egoeren aurrean nola jokatuko luketenaren inguruan solastuz.</p>
Materiala	Esku-pilotako pilota bat.
Denbora	30 minutu.
Taldekatzea	Talde osoa.
Edukiak	<p><i>Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia:</i></p> <p>2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Harreman interperzonaletan nahiz hezkuntza-esparruan sortu ohi diren komunikazio-egoeretan parte hartzea eta kooperatzea. - Ahoz modu proaktiboan eta konfiantza osoz aritzearen aldeko interesa izatea. <p><i>Konpetentzia motorra:</i></p> <p>5. MULTZOA. Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jolas eta kirol motak. Jolasak eta kirolak egitea, euskal herri-kirolak barne, modalitate askotarikoak eta gero eta zailtasun handiagokoak.
Irudiak	



Izenburua: Gorputz ezberdinak.	
Deskribapena	<p>Errelebo jolas bat izango da. Gorputz baten silueta duten bi A4 orri jarriko dira paretan, bat talde bakoitzarentzat. Talde bakoitza, frontoiaren alde batean jarriko da, eta siluetak erdian kokaturik egongo dira. Talde bakoitzak, silueta bete ahal izateko, erronka txiki bat bete beharko du, taldekide bakoitzak esku-pilotako pilotarekin bost toke eman beharko ditu partearen aurka.</p> <p>Taldekideak erronka lortu duenean, pilota lurrean utzi eta bere taldeari egotzi zaion ontzira joan beharko da, izan ere, hontzi horretan gorputz zati ezberdinak egongo dira. Ahalik eta azkarren, zati hauetako bat hartu eta siluetan itsastera joan beharko da. Partaideek ez dute izango denbora zein gorputz zati hartu erabakitzeko, eta horrela gorpuzkera ezberdinak sortuko dituzte.</p> <p>Siluetan itsatsi ondoren, korrika joan beharko da bere hurrengo taldekideari erreleboa txokala baten bitartez emateko. Hau ematen denean, hurrengo taldekideak lurretik pilota hartu eta erronkarekin hasteko aukera izango du.</p> <p>Jolasaren helburua pertsona bezain gorputz ezberdin daudela eta denak baliozkoak direla ohartzea da.</p>
Materiala	A4 ko bi gorputz silueta, gorputz zati ezberdinak, alde bikoitzeko itsasgarria.
Denbora	25 minutu.
Taldekatzeta	Bi taldetan.
Edukiak	<p><i>Konpetentzia motorra:</i></p> <p>2. MULTZOA. Nork bere burua ezagutzea eta kontrolatzea.</p>





- Norberaren eta gainerako pertsonen gorputzaren egoera balioestea eta onartzea, eta jarrera kritikoa izatea gizartean gorputzarekiko dagoen eredu estetikoarekiko.

5. MULTZOA. Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza.

- Norberaren eta taldearen ahalegina balioestea jolas eta kirol mota guztietan, preferentziak eta aurreiritziak alde batera utzita.

- Jolasari eta kirolari balioa ematea, gozatzeko, harremanak izateko eta aisia-denbora gogobetez erabiltzeko modua diren aldetik.

Irudiak



Izenburua: Eguneko hausnarketa.	
Deskribapena	<p>Klase amaieran, ikasle guztiak batu eta egunean landu dugunari buruz hitz egingo dugu, horretarako beraien parte hartzea sustatu eta bideratuko duten galderak baliatuko ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zer moduz pasa duzue gaurko saioan? - Zein izan da gehien gustatu zaizuen ariketa? - Zein gutxien gustatu zaizuen? - Zerbait aldatu beharko bazenute, zer izango litzateke? <p>Hauetaz gain, eginiko jarduera bakoitzaren helburua edo hauen atzean dagoen mezua azalduko zaie:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Definizioak aurkezten: saioetan zehar landuko diren hitz edo gaiak izango direnez, beraien esanahia argi uztea da helburua, baita galdetegian zehar izan dituzten zalantzak argitzea ere. - Gorputz ezberdinak: Honekin ikusarazi nahi da denok neska edo mutil izan arren, gure gorputzen errealitatea oso ezberdina dela eta gorputz mota guztiek errespetua merezi dutela.
Materiala	Ez da materialik behar.
Denbora	15 minutu.
Taldekatzea	Talde handian.
Edukiak	<p><i>Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia:</i></p> <p>2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Harreman interpersoneletan nahiz hezkuntza-esparruan sortu ohi diren komunikazio-egoeretan parte hartzea eta kooperatzea. - Ahozko interakzio-egoeretan nagusi diren arauak aintzat hartzea: hitz egiteko txanda, gaiari loturik hitz egiteko mekanismoak, besteen iritziekiko errespetua, kortesia- arauak... - Ahoz modu proaktiboan eta konfiantza osoz aritzearen aldeko interesa izatea. - Solaskideen hizkuntza-erabilerekiko errespetua izatea.

3. eguna.

Izenburua: Hitz ezkutua.	
Deskribapena	<p>Ikasleak talde txikietan banatuko dira eta hitz ezkutua bilatzera jolastuko dute, horretarako taldekide batek kartulina bat hartu eta bertan dagoen hitza asma dezaten, taldekideei pistak eman beharko dizkie.</p> <p>Kartulina lortzeko ordea, froga txiki bat pasa beharko dute, ikasle bakoitzak armailetan gora igo, ta bertan 10 jumping-jack eta bost flexio egin beharko ditu. Ikasle bakoitzaren gaitasun fisikoak ezberdinak direla kontuan hartuz, ariketa hauen hiru aldaera aurkeztuko zaizkie (flexioak paretan, belauak jarririk edo belaunik gabe), beraien gaitasunetara egokitzen dena hautatu ahal izateko.</p> <p>Behin hau eginik, kartulina bat hartu, eta berriz ere bere taldekideengana joan beharko da. Bertan, kartulinan jartzen duena asma dezaten lortu beharko du ez da erraza izango, izan ere, hitz bakoitzak esan ezin daitezkeen beste hitz batzuk ekarriko ditu berarekin.</p> <p>Hitz horietako bat esanez gero, beste kartulina baten bila joan beharko dira. Eta denboraren amaieran hitz gehien asma ditzatela lortu duen taldekideak irabaziko du.</p>
Materiala	Orientazio sexual ezberdinekin kartulinak.
Denbora	15 minutu.
Taldekatzea	Talde txikietan.
Edukiak	<p><i>Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia:</i></p> <p>2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ahozko testuen ekoizpen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta transferitzea. - Ahozko testuen ulermen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta transferitzea. <p><i>Konpetentzia motorra:</i></p> <p>5. MULTZOA. Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jolaseko arauak, jarraibideak, estrategiak eta haietan parte hartzen duten pertsonak onartzea eta errespetatzea. Joko garbiko kode bat egitea eta betetzea. - Norberaren eta taldearen ahalegina balioestea jolas eta kirol mota guztietan, preferentziak eta aurreiritziak alde batera utzita.

Irudiak



Izenburua: Rol-playing.

Deskribapena


Talde txikietan banatuko dira eta talde bakoitzak egoera ezberdin bat antzestu beharko du. Egoerak banatu eta 10 minutuko tartea emango zaio talde bakoitzari antzezlanak prestatzeko, ondoren beste taldekideei aurkeztuko zaie.


Egoerak:

- Alabak gurasoei neska-laguna duela adierazi nahi die, baina lehenengo aldia da lesbiana bezala azalduko dena (Homosexuala).
- Eskolara mutil berri bat iritsi da, eta zuk neska-laguna duzun arren, berarekiko sentimenduak garatzen hasi zarela ohartu zara (Bisexuala).
- Zakila duzun arren, zu ez zara mutil sentitzen, neska gisa identifikatzen zara eta gurasoei neska zarela azaldu behar diezu (Trans*).
- Zure inguruko lagun guztiek neska-lagun edo mutil-laguna dute, baina zuri ez zaizu inoiz inor gustatu, eta beste inorekiko erakarpenik ez duzu sentitzen (Asexuala).
- Zure genitalen arabera genero bat egotzi dizuten arren, zu ez zara ez mutil ez neska sentitzen, bi generoen artean

	mugitzen zara (Ez bitarra).
Materiala	Rol ezberdinekin kartulinak.
Denbora	30 minutu.
Taldekatzea	Talde txikietan.
Edukiak	<p><i>Konpetentzia motorra:</i></p> <p>3. MULTZOA. Gorputz-adierazpena eta komunikazioa.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gorputzaren bidezko komunikazioa dakarten egoeretan parte hartzea eta egoera horiek errespetatzea. - Gorputzaren, keinuen eta mugimenduaren bidez adieraztea eta komunikatzea emozioak eta sentimenduak. - Objektu eta materialez lagunduta, errepresentazio eta inprobisazio artistikoak egitea gorputz-mintzairarekin.
Irudiak	<p>The image shows four sticky notes on a wooden surface, each with handwritten text in Basque and a label in parentheses. The notes discuss different sexual orientations:</p> <ul style="list-style-type: none"> (Bisexuala): Eskatara mutil berr bat iritsi da, eta zuk nekalogira duzun arren, berearekiko sentimendurik gertatu hasi zarela dioazu zara. (Asexuala): Zure inguruko lagun guztiak nekalogira edo mutilagira dute, baina zuri ez zaizu inoiz inor gustatu, eta beste inorrekiko arakopenik ez duzu sentitzen. (Homosexuala): Alabak gurascen nekalogira dela adierazi nahi die, baina leheneago alda da lesbiana bezala azalduko dela beraien aurrean. (Trans*): Jakila duzun arren, zu ez zara mutil sentitzen, neska gisa identifikatzen zara eta gurascen neska zarela azaldu nahi dute. (Ez bitarra): Zure genitalen arabera genero bat egotzi dute arren, zu ez zara ez mutil ez neska gisa identifikatzen, bi generoen artean mugitzen zara.

Izenburua: Pictionari.	
Deskribapena	<p>Ikasleak talde txikietan jarriko dira eta piktionarian jolastuko dutela azalduko zaie. Irakasleak, zaku batean sarturik eramango ditu marraztu beharreko irudiak.</p> <p>Talde bakoitzak bere txanda denean, bi minutuko tartean ahalik eta marrazki gehien asmatu beharko ditu. Horretarako, banaka zakutik kartulinak atera eta taldekidek zer den asmatu arte marraztu beharko dute. Asmatu marrazki bakoitzaren ostean, beste taldekide baten txanda izango da, denek rol guztiak (marrazkilari eta asmatzailea) izan ditzaten.</p> <p>Zakura iristeko ordea, zirkuito bat osatu beharko dute, zirkuito horretan konoekin markaturiko zig-zag zati bat eta hanka baten gainean pasatu beharreko hiru uztai egongo dira.</p> <p>Jolasaren amaieran, marrazki gehien asmatu dituen taldeak irabazten du.</p> <p>Egin beharreko marrazkiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Heroia. - Suhiltzailea. - Erizaina. - Irakaslea. - Futbolista. - Medikua. - Astronauta. - Txirrindularia. - Emakumea. - Gizona. - Etxeko langilea. - Garbitzailea. - Dendaria. - Soroslea. - Ume zaintzailea. - Abeslaria. - Autobus gidaria. - Bikotea. - Arrantzalea. - Ehiztaria. <p>Jolasaren amaieran, egin dituzten irudiak aztertuko dira, eta rol bakoitzarentzat eginiko marrazki mota aztertuko da, ea gizon edo emakumeei egotzi dioten lanbidea eta hori zergatik ote den galdetuz.</p>
Materiala	Marraztu behar dutena dioten kartulinak, konoak, uztailak, arbela eta markagailuak.
Denbora	30 minutu.

Taldekatzea	Talde txikitan.
Edukiak	<p><i>Arterako kompetentzia:</i></p> <p>5. MULTZOA. Arte-adierazpen plastiko eta bisualak ekoiztea, espresatzea eta sortzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jarrera originala eta berezkoa izatea, eta, artelanak sortzean, modu pertsonal eta autonomoan adieraztea ideiak, sentimenduak eta bizipenak. - Norberak artea landu eta egiteko duen ahalmenean konfiantza izatea eta norberaren eta besteren ekoizpenak balioestea. <p><i>Kompetentzia motorra:</i></p> <p>5. MULTZOA. Kultura motorra: aisia eta denbora liberako hezkuntza.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jolasaren oinarrizko estrategien erabilera egokia: lankidetzak, aurkaritza eta lankidetzak/aurkaritza. - Jolaseko arauak, jarraibideak, estrategiak eta haietan parte hartzen duten pertsonak onartzea eta errespetatzea. Joko garbiko kode bat egitea eta betetzea. - Norberaren eta taldearen ahalegina balioestea jolas eta kirol mota guztietan, preferentziak eta aurreiritziak alde batera utzita.
Irudiak	


Izenburua: Eguneko hausnarketa.	
Deskribapena	<p>Klase amaieran, ikasle guztiak batu eta egunean landu dugunari buruz hitz egingo dugu. Lehenik eta behin jolas edo ariketa bakoitzaren zergatia azalduko zaie:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hitz ezkutua: Aurreko klasean aurkezturiko hitzen esanahia ongi barneratu ote zuten eta hauek besteei azaltzeko gai ote diren ikusi nahi da. - Rol playing: Homosexualak, Trans*, ez bitar, asexual... direnen errealitatera gerturatzea zen jolasaren helburu nagusia, beraien bizitzako uneren batean bizituko duten une bat pasatuaraziz. - Pictionari: Artearen bitartez oso barneraturik ditugun gizarte rolak ikusaraztea da jolasaren xedea. Ikasleei txikitatik jaso ditugun ezkutuko mezuak aurkeztea eta ikusaraztea nahi gabe bada ere, denok dugula gizarteko rol bakoitza genero batekin lotua, eta hori puskatzen saiatu behar garela.
Materiala	Ez da materialik behar.
Denbora	15 minutu.
Taldekatzea	Talde handian.
Edukiak	<p><i>Hizkuntza eta literatura komunikazioaren konpetentzia:</i></p> <p>2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Harreman interpersoneletan nahiz hezkuntza-esparruan sortu ohi diren komunikazio-egoeretan parte hartzea eta kooperatzea. - Ahozko interakzio-egoeretan nagusi diren arauak aintzat hartzea: hitz egiteko txanda, gaiari loturik hitz egiteko mekanismoak, besteen iritziekiko errespetua, kortesia- arauak... - Ahoz modu proaktiboan eta konfiantza osoz aritzearen aldeko interesa izatea. - Solaskideen hizkuntza-erabilerekiko errespetua izatea.
Irudiak	 <p>A photograph showing a group of approximately 15-20 students sitting in a circle on a dark gymnasium floor. They are dressed in casual clothing, including green and white shirts and red hoodies. The background shows red stadium seating and a glass wall. The students appear to be in the middle of a group activity or discussion.</p>

4. eguna.

Izenburua: Zerrendak sortzen.	
Deskribapena	<p>Ikasleak talde txikietan banatuko dira eta zerrenden jokora jolastuko dugula azalduko zaie. Jolasaren helburua gai bakoitzeko ahalik eta zerrenda luzeena egitea izango da.</p> <p>Horretarako, irakasleak zerrenda gai ezberdinak esango ditu eta hiru minutuko denboran ahalik eta izen gehien pentsatzen saiatu beharko dira. Izenak idazteko ordea, lehenengo bost abdominal egin beharko dituzte, hau da, ikasleak abdominalak egin eta ondoren korrika joan beharko da papera dagoen lekura bertan arkatzarekin izena jartzeko.</p> <p>Zerrendako izen bakoitzaren truk puntu bat lortuko dute eta jolasaren amaieran puntu gehien dituen taldeak irabaziko du.</p> <p>Zerrenda-gaiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gizon futbolista famatuak. - Emakume futbolista famatuak. - Gizon txirrinduari famatuak. - Emakume txirrindulari famatuak. - Mendizale gizon famatuak. - Emakume mendizale famatuak. - Gizon zientzialari famatuak. - Emakume zientzialari famatuak. - Kirolari homosexual famatuak. - Trans pertsona famatuak.
Materiala	Papera, arkatza/boligrafoa.
Denbora	30 minutu.
Taldekatzea	Talde txikietan.
Edukiak	<p><i>Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia:</i></p> <p>3. MULTZOA. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Idatzizko testuen ekoizpen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta transferitzea. - Idatziz modu proaktiboan eta konfiantza osoz espresatzearen aldeko interesa izatea. <p><i>Konpetentzia motorra:</i></p> <p>5. MULTZOA. Kultura motorra: aisia eta denbora liberako hezkuntza.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jolasaren oinarrizko estrategien erabilera egokia: lankidetzak, aurkaritzak eta lankidetzak/aurkaritzak. - Jolaseko arauak, jarraibideak, estrategiak eta haietan parte hartzen duten pertsonak onartzea eta errespetatzea. Joko garbiko kode bat egitea eta betetzea.


- Norberaren eta taldearen ahalegina balioestea jolas eta kirol mota guztietan, preferentziak eta aurreiritziak alde batera utzita.

Irudiak



Izenburua: Mimika	
Deskribapena	<p>Ikasleak lau taldetan banatuko dira eta talde bakoitza zelaiaren iskina batean kokatuko da. Irakaslea erdian egongo da eta talde bakoitzeko kide bati erdira gerturatzeko esango dio. Behin lau ikasleak irakaslearekin daudela, honek mimika bitartez besteei egin beharko diena esango die.</p> <p>Orduan, lau ikasleak korrika beraien taldeetara joan beharko dira mimika egitera. Taldekideetako batek asmatzen duenean korrika irakaslearengana joan beharko da honi izena esatera. Irakasleak ongi asmatu duela baieztatzean puntu bat lortuko dute.</p> <p>Irakaslearengana joango den ikaslea aldatuz joango da, hau da, ez da beti ikasle berdina izango mimo rola hartzen duena eta ikasle bakoitza gutxienez behin pasa beharko da mimo roletik.</p> <p>Imitatu beharko dituzten rola hauek izango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Homosexuala. - Lesbiana. - Suhiltzailea. - Garbitzailea. - Trans*. - Homosexuala. - Ehiztaria. - Super heroia. - Korrikalaria. - Medikua.
Materiala	Ez da materialik behar.
Denbora	15 minutu.
Taldekatzea	Lau taldetan.
Edukiak	<p><i>Konpetentzia motorra:</i></p> <p>3. MULTZOA. Gorputz-adierazpena eta komunikazioa.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gorputzaren bidezko komunikazioa dakarten egoeretan parte hartzea eta egoera horiek errespetatzea. - Gorputzaren, keinuen eta mugimenduaren bidez adieraztea eta komunikatzea emozioak eta sentimenduak. - Objektu eta materialez lagunduta, errepresentazio eta inprobisazio artistikoak egitea gorputz-mintzairarekin.

Izenburua: Nork ditu pribilegio gehien?	
Deskribapena	<p>Ikasle guztiak ilara horizontal batean jarriko dira ikasgela amaieran, begiak itxita eta beraien artean distantzia bat mantenduz. Irakasleak esaldi ezberdinak esango ditu, eta ikasleak esaldian adierazitakoarekin bat egiten badu, pauso bat aurrera egingo du.</p> <p>Jolasaren amaieran begiak irekiko dituzte eta ikasle bakoitzak aurrera zenbat egin duen ikusi ahal izango dute.</p> <p>Esaldiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nire familia nirekin bizi da. - Nire gurasoek lan egiten dute. - Behar dudan guztia erosten didate, nire beharrak ase daude. - Eskolaz kanpo ekintza ezberdinak burutzen ditut. - Nire gelan errealitate ezberdinetako pertsonak daude. - Eskolako liburuetan nire genero berdineko pertsonak ikus ditzaket. - Inguruan nire orientazio sexual berdineko pertsonak aurki ditzaket. - Nire orientazio sexuala mundu osoan onartua dago. - Triste nagoenean negar egin dezaket. - Indartsua izan behar naizela diote. - Nahi dudan lanpostua lor dezaket. - Guraso izan nahi dut. - Txikitan egotzitako generoarekin ados nago. - Nahi dudan arropa jantzi dezaket. - Makilatzea gustuko dut. - Kirola egitea gustatzen zait. - Pitxiak jaztea gustuko dut. - Ile luzea izatea gustatzen zait. - Ile motza izatea gustatzen zait. - Edozein koloretako arropa jantzi dezaket.
Materiala	Ez da materialik behar.
Denbora	30 minutu.
Taldekatzea	Talde handian.
Edukiak	1. MULTZOA. Eduki komunak. Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.

Izenburua: Eguneko hausnarketa.	
Deskribapena	<p>Klase amaieran, ikasle guztiak batu eta egunean landu dugunari buruz hitz egingo dugu, ariketak zer iruditu zaizkien, gustuko izan ote dituzten eta zer ikasi duten galdetuko zaie.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zerrendak sortzen: Gizarteko kide guztiak aukera eta baliabide berdinak ditugula saltzen diguten arren, patriarkatuaren ondorioz hainbat azpitalde (LGBTIQ+, emakumeak...) baztertuak eta ezkutatuak direla ikusarazi nahi zaie. - Mimika: Gizarteko estereotipoak azalartzea da helburua. Beraiei ikusaraztea nola pertsona homosexualak edo gizarteko rol ezberdinak irudikatzeko beti estereotipo berdinetara jotzen dugun. - Nork ditu pribilegio gehien: Denak ikastetxe bereko eta adin berdineko pertsonak izan arren, beraien familia, genero edo arraza dela eta pribilegio maila ezberdinak dituzten. Era berean, beste herrialdeetako haurrek beraien alderatuz zein pribilegio gutxi dituzten pentsaraztea.
Materiala	Ez da materialik behar.
Denbora	15 minutu.
Taldekatzea	Talde handian.
Edukiak	<p><i>Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia:</i></p> <p>2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Harreman interpersoneletan nahiz hezkuntza-esparruan sortu ohi diren komunikazio-egoeretan parte hartzea eta kooperatzea. - Ahozko interakzio-egoeretan nagusi diren arauak aintzat hartzea: hitz egiteko txanda, gaiari loturik hitz egiteko mekanismoak, besteen iritziekiko errespetua, kortesia- arauak... - Ahoz modu proaktiboan eta konfiantza osoz aritzearen aldeko interesa izatea. - Solaskideen hizkuntza-erabilerekiko errespetua izatea.
Irudiak	



5. eguna.


Izenburua: Film laburra.	
Deskribapena	<p>Ikasgelako pantaila handian “mundo al reves, homofobia” izeneko bideo bat jarriko zaie. Ondoren ikusitakoaren eta sentitu dutenaren inguruan hitz egingo dugu, horretarako galdera ezberdinak baliatuko ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zein uste duzue dela film labur honen helburua? - Zer da gehien harritu dizuen? - Gure mundua horrela izango balitz nola uste duzue sentituko zinatela? - Film laburra ikusi ostean nola sentitu zarete? - Pertsona homosexualen aurkako jazarpena egiten dela uste ahal duzue? - Zein uste duzue dela jazarpena egiteko arrazoi nagusia? - Zenbait kasutan jazarpena justifikatua dela uste duzue? - Zerk eragin dezake pertsona bat jazartzaile bilakatzea? - Zuen eskolan jazarpena ematen dela uste ahal duzue?
Materiala	<p>Youtubeko bideo bat: https://www.youtube.com/watch?v=Sh3vGaX-h7w</p>
Denbora	60 minutu.
Taldekatzea	Talde handian.
Edukiak	<p><i>Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia:</i></p> <p>2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Harreman interpersonean nahiz hezkuntza-esparruan sortu ohi diren komunikazio-egoeretan parte hartzea eta kooperatzea. - Ahozko interakzio-egoeretan nagusi diren arauak aintzat hartzea: hitz egiteko txanda, gaiari loturik hitz egiteko mekanismoak, besteen iritziekiko errespetua, kortesia- arauak... - Ahoz modu proaktiboan eta konfiantza osoz aritzearen aldeko interesa izatea. - Solaskideen hizkuntza-erabilerekiko errespetua izatea.

6. eguna.

Izenburua: Ni ezberdina naiz eta zer.	
Deskribapena	<p>Jarduera banaka hasiko da eta talde handian lan egiten amaituko da. Ikasle bakoitzari bera ezberdin egiten duen hiru ezaugarri pentsatzeko eskatuko zaio (sudur handia, karakter asko, begi txikiak, lodi egotea...). Ikasleak 30 segundoz plantxan mantendu beharko du idazteko materiala eskuratu ahal izateko. 30 segundoak igarotzean, frontoiaren beste aldean dagoen materiala hartzera joan ahal izango du, bertan idatzi eta berriro ere hasierako puntura itzuli beharko da prozesua errepikatzeko. Hau hiru aldiz egin beharko du.</p> <p>Denek ezaugarri horiek identifikatu ostean, gelaren aurrealdera atera eta gainontzeko ikaskideei esango dizkiete.</p> <p>Ondoren, bakoitza bere taldearekin bildu eta kartulina bat osatuko du “Ni (ezaugarria) naiz eta zer” edo “Nik (ezaugarria) ditut/dut eta zer” esaldiarekin. Amaieran, gelan pegatuko ditugu, horrela ikasle guztiak ezberdinak garela eta denek errespetu bera merezi dugula aldarrikatzeko.</p>
Materiala	Kartulinak, errotulagailuak, arkatzak, boligrafoak.
Denbora	45 minutu.
Taldekatzea	Talde handian eta banaka.
Edukiak	<p><i>Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia:</i></p> <p>3. MULTZOA. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Idatzizko testuen ekoizpen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta transferitzea. - Idatziz modu proaktiboan eta konfiantza osoz espresatzearen aldeko interesa izatea. <p><i>Konpetentzia motorra:</i></p> <p>5. MULTZOA. Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jolasaren oinarriko estrategien erabilera egokia: lankidetzak, aurkaritzak eta lankidetzak/aurkaritzak. - Jolaseko arauak, jarraibideak, estrategiak eta haietan parte hartzen duten pertsonak onartzea eta errespetatzea. Joko garbiko kode bat egitea eta betetzea. - Norberaren eta taldearen ahalegina balioestea jolas eta kirol mota guztietan, lehenetsiak eta aurreiritziak alde batera utzita.

Irudiak





Izenburua: Nor da nor.	
Deskribapena	<p>Ikasleei kopetan itsatsi beharko duten post-it bana emango zaie, eta kopetan kokatu beharko dute bertan jartzen duena irakurri gabe. Jolasa hasi ahal izateko, lehenengo beraien jolaskideak zeintzuk izango diren aurkitu beharko dute.</p> <p>Kopetan jarrita izango duten ezaugarriak, eskola jazarpena pairatzen duten ikasleenak izango dira. Bi taldekatze nagusiak eragilea fisikoa edo ikaslearen ezaugarrien arabera (generoa, aniztasun afektibo-sexuala, orientazioa, identitatea...) izango da.</p> <p>Elkar aurkitzeko jolas bat egin beharko dute. Jolas horretan, ikasleari</p>

	<p>post-it-ekin batera animalia baten izena esango zaio, astoa ala ahatea, eta begiak itxirik lau hanketan, egokituriko animaliaaren soinua eginez, elkar aurkitu beharko dute.</p> <p>Behin bi taldetan banatu direlarik, lurrean eseri eta jolasari ekingo diote. “Bai” edo “ez” erantzun daitezkeen galderak eginez, beraien kopetako post-it-ean jartzen duen ezaugarria asmatzen saiatu beharko dira. Galdera bakoitzaren ostean, eserita dauden borobilari korrika buelta bat eman beharko diote. Erantzuna zuzena bada beste galdera bat egin ahal izango dute, ezezkoa bada ordea, hurrengo jokalaria txanda izango da.</p> <p>Eragilea asmatzen duenak, kopetatik post-it-a kendu eta gainerakoei laguntzen jarraituko du.</p> <p>Eragileak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Fisikoak: <ul style="list-style-type: none"> - Betaurrekoak izatea. - Partxe bat ematea. - Gizena egotea. - Oso argala egotea. - Errena izatea. - Eskumotza izatea. - Totela izatea. - Grano asko izatea. - Txikia izatea. - Gorputzean ile asko izatea. - Izaera: <ul style="list-style-type: none"> - Gay izatea. - Lesbiana izatea. - Kirola ez gustuko izatea. - Trans* izatea. - Marimandon/a izatea. - Animea gustuko izatea. - Isila izatea. - Autoestimua baxua izatea. - Traketsa izatea. - Beldurtia izatea.
Materiala	Post-it ezberdinak, pertsonaia historikoekin.
Denbora	35 minutu.
Taldekatzea	Bi talde handietan.
Edukiak	<p><i>Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia:</i></p> <p>2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ahozko testuen ekoizpen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta transferitzea.

- Ahoz modu proaktiboan eta konfiantza osoz aritzearen aldeko interesa izatea.

- Solaskideen hizkuntza-erabilerekiko errespetua izatea.

3. MULTZOA. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea.

- Idatzizko testuen ulermen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta transferitzea.

- Solaskideen hizkuntza-erabilerekiko errespetua izatea.

Konpetentzia motorra:

5. MULTZOA. Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza.

- Jolasaren oinarriko estrategien erabilera egokia: lankidetzeta, aurkaritzeta eta lankidetzeta/aurkaritzeta.

- Jolaseko arauak, jarraibideak, estrategiak eta haietan parte hartzen duten pertsonak onartzea eta errespetatzea. Joko garbiko kode bat egitea eta betetzea.

- Norberaren eta taldearen ahalegina balioestea jolas eta kirol mota guztietan, nahiak eta aurreiritziak alde batera utzita.

Irudiak



Izenburua: Eguneko hausnarketa.

Deskribapena	<p>Klase amaieran, ikasle guztiak batu eta egunean landu dugunari buruz hitz egingo dugu, ariketak zer iruditu zaizkien, gustuko izan ote dituzten eta zer ikasi duten galdetuko zaie. Gainera, eginiko jardueren helburuak azalduko zaizkie:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ni ezberdina naiz eta zer: Norberak bere ezaugarriak identifikatu eta onartzea. Eta horrekin batera ikasgarritza bakoitzak dituen ezaugarriak, izan fisikoak edo izaera aldekoak, onak eta positiboak direla, eta ez dugula ez lotsatu ez ezkutatu beharrik garen bezalakoak izateko. Eta noski, gu errespetatzea nahi dugun bezala, besteak ere diren bezala onartu behar ditugula ulertzea. - Nor da nor: Eskola jazarpena arrazoi ezberdinengatik pairatzen dela, eta arrazoi horietako bat bera ere ez dela justifikagarria ikustaraztea.
Materiala	Ez da materialik behar.
Denbora	10 minutu.
Taldekatzea	Talde handian.
Edukiak	<p><i>Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia:</i></p> <p>2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Harreman interpersonean nahiz hezkuntza-esparruan sortu ohi diren komunikazio-egoeretan parte hartzea eta kooperatzea. - Ahozko interakzio-egoeretan nagusi diren arauak aintzat hartzea: hitz egiteko txanda, gaiari loturik hitz egiteko mekanismoak, besteen iritziekiko errespetua, kortesia- arauak... - Ahoz modu proaktiboan eta konfiantza osoz aritzearen aldeko interesa izatea. - Solaskideen hizkuntza-erabilerekiko errespetua izatea.

7. eguna.

Izenburua: Eskola liburuak.	
Deskribapena	<p>Talde txikietan banaturik ahalik eta pertsonaia gehien bilatzeko esango zaie, horretarako ikasgela barnean dituzten baliabideak erabiliko dituzte, liburuak, irakurgaiak...</p> <p>Lehenengo bilaketa hori egin ostean, aurkitu dituzten pertsonaia horiek aztertzeke eskatuko zaie:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zein da hauen generoa? - Horien gorputza nolakoa da? - Ze azal kolore? - Ze adin? - Ze jatorri? - Zein ezaugarri fisiko?

	<p>- Ile koloreak?</p> <p>Ezaugarri bakoitzetik horrelako zenbat pertsonaia dauden zenbatzeko esango zaie, ezaugarri ezberdinen arteko kopuru ezberdintasunaz nabarmentzeko.</p>
Materiala	Eskolako liburuak.
Denbora	45 minutu.
Taldekatzea	Talde handian.
Edukiak	<p><i>Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia:</i></p> <p>3. MULTZOA. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Idatzizko testuen ulermen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta transferitzea. - Solaskideen hizkuntza-erabilerekiko errespetua izatea.

Izenburua: Egia ala gezurra.	
Deskribapena	<p>Bigarren saioan eginiko adierazpen berdinak esango zaizkie. Bigarren aldi honetan saioetan zehar zenbat ikasi duten eta zein informaziorekin geratu diren aztertzea izango da helburua, I+Zaren arrakasta neurtzeko.</p> <p>Adierazpenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bi genital mota daude, alua eta zakila. - Dugun genitalaren arabera neska edo mutila izango naiz. - Generoa genitalek ezartzen dute. - Sexua eta generoa gauza bera dira. - Orientazio sexual ezberdinak daude. - Trans pertsonak ezin dira homosexualak izan. - Trans izateko, heldua izan behar zara, ezin duzu txikitatik jakin. - Denak heterosexualak jaiotzen gara.
Materiala	Ez da materialik behar.
Denbora	15 minutu.
Taldekatzea	Talde osoa.
Edukiak	1. MULTZOA. Eduki komunak. Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.

8. eguna.

Izenburua: Zenbat ikasi dut?	
Deskribapena	Zerbitzuaren hasieran bete zuten galdetegia beteko dute berriro ere zer barneratu duten ikusteko.
Materiala	Google galdetegia.
Denbora	20 minutu
Taldekatzea	Banaka.
Edukiak	<p><i>Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia:</i></p> <p>3. MULTZOA. Idatziko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Idatziko testuen ekoizpen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta transferitzea. - Idatziz modu proaktiboan eta konfiantza osoz espresatzearen aldeko interesa izatea.

Izenburua: Zer iruditu zait?	
Deskribapena	Bi errubrika betetzeko azalduko zaie, lehena lzerbitzua baloratzeko izango da, zer gustatu zaien eta zer aldatuko luketen adieraz dezaten. Bigarrena, autoebaluazioa izango da, beraien parte hartze eta inplikazioa ebaluatzeko erabiliko dutena.
Materiala	Bi ebaluazio errubrika, bat zerbitzuarena eta bestea autoebaluazioa.
Denbora	20 minutu.
Taldekatzea	Banaka.
Edukiak	<p><i>Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia:</i></p> <p>3. MULTZOA. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Idatzizko testuen ekoizpen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta transferitzea. - Idatziz modu proaktiboan eta konfiantza osoz espresatzearen aldeko interesa izatea.

Izenburua: Iritziak partekatuz.	
Deskribapena	<p>Ikasleak borobilean jarririk, zerbitzuaren feedback bat emango dute, horretarako beraien parte hartzea sustatuko duten galderez baliatuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zein izan da gehien gustatu zaizuen jarduera? - Zein da gutxien gustatu zaizuen jarduera? - Zerbait aldatu behako bazenute, zer izango litzateke? - Saioetan zehar zerbait berria ikasi duzu? - Baliagarria iruditzen zaizue ala denbora galtze bat izan da? - Beste urteetan, seigarren mailako ikasleekin lantzeko egokia iruditzen zaizue? - Nola sentitu zarete klase ezberdinetan zehar?
Materiala	Ez da materialik behar.
Denbora	20 minutu.
Taldekatzea	Talde handian.
Edukiak	<p><i>Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia:</i></p> <p>2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Harreman interpersoneletan nahiz hezkuntza-esparruan sortu ohi diren komunikazio-egoeretan parte hartzea eta kooperatzea. - Ahozko interakzio-egoeretan nagusi diren arauak aintzat hartzea: hitz egiteko txanda, gaiari loturik hitz egiteko mekanismoak, besteen iritziekiko errespetua, kortesia- arauak... - Ahoz modu proaktiboan eta konfiantza osoz aritzearen aldeko interesa izatea.

- Solaskideen hizkuntza-erabilerekiko errespetua izatea.

2. ERANSKINA. KRONOGRAMA

Data / Denbora-tartea	Ekintza
Irailak 26	GrAI-eko tutorearekin 1. bilera.
Urriak 24	Bilera: Marko teorikoaren lehen zirriborroa.
Azaroak 11	Bilera: Marko teorikoaren hobetzea eta helburuak finkatzea.
Abenduak 9	Bilera: Marko teorikoaren hobetzea.
Urtarrilak 26	Bilera: Ikaskuntza zerbitzuaren hasiera nola eman.
Urtarrilak 30	Zumaiena ikastetxeko zuzendariarekin lehenengo bilera.
Otsailak 13	Zuzendariarekin bilera I+Zaren datak adosteko.
Otsailak 16	Gorputz Hezkuntzako irakaslearekin bilera.
Otsailak 24	Zuzendariarekin bigarren bilera I+Zaren datak finkatzeko.
Otsailak 28	Lehenengo saioa.
Otsailak 28	Bigarren saioa.
Martxoak 7	Hirugarren saioa.
Martxoak 14	Laugarren saioa.
Martxoak 21	Bostgarren saioa.
Martxoak 21	Seigarren saioa.
Martxoak 27	Zazpigarren saioa.
Martxoak 28	Zortzigarren saioa.

3. ERANSKINA. BAIMENA



Familia eta tutore agurgarriak,

Nire izena Eider Hermoso Larzabal da, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Didaktika eta Eskola Antolakuntza departamentuko irakaslea, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatekoa hain zuzen ere.

Idazki honen bidez zuekin harremanetan jartzen naiz, zuen umearen laguntza eskatzeko, laguntza hau zuen eskolan praktikak burutzen ari den lanire Senperena Arona-ren Gradu Amaierako Lana burutzeko da. Laguntza eskaera hori, anonimoa izango den galdetegi bat erantzutea izango da, non generoa eta generoak bere baitan dakartzan kontuen inguruan izango den. Helburua, galdetegi horretatik jasotzen diren emaitzak ikusita, ikasleekin jarduera batzuk martxan jartzea izango da.

Galdetegi horretatik jasotzen den informazio guztia anonimoa izango da eta emaitzak ikerkuntzarako bakarrik erabiliko dira.

Mila esker aldez aurretik.

Eider Hermoso Larzabal

Baimen sinadura:

Ikaslearen izen abizenak:

Estimadas familias y personas tutoras,

Mi nombre es Eider Hermoso Larzabal, profesora del departamento de Didáctica y Organización Escolar de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU), concretamente de la facultad de Educación, Filosofía y Antropología.

Por medio de este escrito me pongo en contacto para pedir os la ayuda de vuestro niño o niña para realizar el Trabajo de Fin de Grado de Ianire Senperena Arona, que está realizando prácticas en vuestra escuela. Esta solicitud de ayuda consistirá en la contestación de un cuestionario anónimo sobre las cuestiones de género. El objetivo, a la vista de los resultados que se obtengan de este cuestionario, será poner en marcha una serie de actividades con el alumnado.

Toda la información que se reciba de este cuestionario será anónima y los resultados se utilizarán exclusivamente para la investigación.

Muchas gracias de antemano,

Eider Hermoso Larzabal

Firma permiso:

Datos del alumnado:

4. ERANSKINA. BEHAKETA.

GALDERA	ERANTZUNA	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Nolako izan da ikasleen parte hartze maila?		
Zein nolako erantzuna jaso du ariketak ikasleen aldetik?		
Gehiago jolasten jarraitu nahi zuten ala erraz aspertu dira?		
Galderak eta interesak sortu zaizkie landutakoaren inguruan?		
Nola sentitu dira ikasleak klasean zehar?		
Nola sentitu naiz ni klasea gidatzerako orduan?		
Zerbait aldatuko banu zer izango litzateke? Eta zergatik?		

5. ERANSKINA. EBALUAZIO ERRUBRIKA IKASKUNTZA ZERBITZUA

EBALUAZIO IRIZPIDEA	BAI	EZ	ERDIZKA
Ikaskuntza Zerbitzuan gauza berriak ikasi ditut, hitzak, terminoak...			
Ikaskuntza Zerbitzuan zehar landutako gaiak nire etorkizunerako garrantzitsuak iruditzen zaizkit.			
Irakaskuntza Zerbitzuan zehar landutako gaiak interesgarriak iruditze zaizkit.			
Eginiko klaseak dibertigarriak iruditu zaizkit.			
Gorputz Hezkuntzako klaseak beste hainbat gai lantzeko balio dutela ikusi dut.			
Ikaskuntza Zerbitzua nire adinerako egokia iruditu zait.			
Beste ikasleei Ikaskuntza Zerbitzu berdina egitera animatuko nieke.			

6. ERANSKINA. AUTOEBALUAZIO ERRUBRIKA

EBALUAZIO IRIZPIDEA	BAI	EZ	ERDIZKA
Ikaskuntza Zerbitzuan zehar jarrera egokia erakutsi dut.			
Egin diren ariketa guztietan parte hartu dut.			
Taldean lan egitea egokitu denean nire taldekideak animatu ditut eta akatsak egin arren garrantzia kendu diot, garrantzitsuena parte hartzea delako.			
Niretzako erosoak ez ziren edo lotsa ematen zidaten ariketetan ere gogotsu parte hartu dut.			
Gauza berriak ikasi ditut.			

7. ERANSKINA. EGUNEROKOA

Otsailak 28:

Gaur lehenengo eta bigarren saioak eraman ditut aurrera, eta proiektuaren hasierarekin oso pozik nagoela esan behar dut. Lehenik eta behin galdetegi bat pasa diet eta hainbat galdera erantzuteko arazoak izan dituzte arren, gogotsu ikusten ditut Ikaskuntza Zerbitzua aurrera eramateko. Ea zer espero duten galdetu diedanean hainbat urduritasun azaleratu dituzten arren parte hartzeko jarrera ona azaldu dute.

Arratsaldean, uste bezala, oso parte hartzaile egon dira eta dinamika guztiak ongi atera direla iruditzen zait. Egia ala gezurran hainbat debate sortu dira eta batak besteari beraien ikuspuntua azaltzen jakin dute, baita hainbat zalantza argitzen ere. Gorputz ezberdinen dinamikan oso ongi pasa dute eta beraienak bezalakoak ez diren mila gorputz daudela ikusteko balio izan die. Azkeneko jardueran, definizioak aurkezten, tentsio piska bat sortu da hasieran jarraian tokeak taldean egitea kosta egin zaielako, baina hasiera batean planteaturiko ukitu kopurua jaitsi ostean, dinamikak modu lasaian egin du aurrera.

Amaierako hausnarketan, orokorrean klasea gustuko izan dutela eta aldatzekotan definizioak aurkezteko jarduera aldatuko luketela adierazi dute, izan ere, klase osoan tentsio puntu bat sortu den une bakarra izan da hau. Ni ere pozik nago beraien pixkanaka termino eta definizio ezberdinak ikaste ari direla ikusi dudalako, eta beraien jarrera oso positiboa izan delako.

Martxoak 7:

Hirugarren saioa zoragarria zian da, ikasleak oso ondo pasa dute eta ariketak asko gustatu zaizkiela plazaratu dute. Lehenengo dinamika, hitz ezkutuarena izan da, hasiera batean bi erronda egitea pentsatua nuen arren, lau egiten amaitu dugu asko gustatu zaielako eta behin eta berriz errepikatu nahi zutelako.

Ondoren rol playing-a egin dugu eta dinamika motelagoa izan den arren, oso ongi antzeztu dituzte egoera ezberdinak eta egoera horiek bizi behar dituzten pertsonekin empatia sentitzeko balio izan die. Amaitzeko, pictionari jolasa egin dugu eta azken honetan ere oso ondo pasa dute, asko gustatu zaie marrazkiak egin eta zer den asmatzea.

Amaierako hausnarketara iritsi garenean, gehien gustatu zaizkien jolasak hitz ezkutua eta pictionari izan direla adierazi dute, eta hausnarketa oso interesgarriak atera dira. Ikusi dute nola nahi gabe iruditegi partekatu bat dugun, eta gizarteko rol ezberdinak genero

espezifikoekin lotzen ditugun, nola nahi gabe bikote bat irudikatzeko garaian neska eta mutilak marrazten ditugun, nola irakasleak emakume gisa margotzen ditugun edo nola heroiak gizonezko gisa marrazten ditugun.

Oso pozik geratu naiz lorturiko emaitzarekin, berriro ere oso parte hartzaile agertu dira eta horrek asko lagundu dinamikak aurrera eramaten eta hausnarketa sakonak lortzen. Ikusten da taldea eroso dagoela bata bestearekin eta horrek antzezteko edo lasai marrazteko segurtasuna ematen die.

Martxoak 14:

Gaurko saioa ere uste bezain ongi irten da, eguna pribilegioen jolasarekin hasi dugu, eta ikasgelan bertan beraien artean dauden pribilegio ezberdintasunez gain, beste hainbat herrialdeetako umeekin alderatuz, Euskal Herriko umeei zenbat erraztasun eta askatasun dituzten ohartzeko balio izan die.

Ondoren, zerrendak sortu jolasa egin dugu, eta hiru jardueretatik gehien gustatu zaiena hau izan da. Zirkuitoa egin eta gai bakoitzarekin erlazionaturiko izenak hiru minututan pentsatu behar izateak, urduri jarri dien arren, motibatu ere egin ditu. Segituan ohartu dira nola mutil kirolarien izenak neskenak baina lehenago etorri zaizkien burura, eta nola kirolari homosexualak edo trans* pertsona asko dauden arren, ez diren oso ezagunak izaten gizartean dagoen estigmaren ondorioz.

Azkeneko jarduera izan da gutxien gustatu zaiena, izatez mimika jolasa ez zaie gehiegi gustatzen eta zenbait kasutan ez zekiten oso ongi nola lortu irakasleak esandako hori interpretatzea. Hala eta guztiz ere oso fin aritu dira lanean eta beti bezala parte hartze maila handia erakutsi dute. Azkeneko minutuetan egiten dugun hausnarketa unean ere ez naiz beraiei tiraka ibili behar izan eta inongo arazorik gabe plazaratu dute zer gustatu zaien eta zer ez.

Martxoak 20:

Ohiko dinamikatik irten eta gaurko saioa gela barruan egin dugu. 20 minutuko film labur bat ikusi dugu eta ondoren honen inguruko debate bat egin dugu, beraien iritzi eta zalantzak argitzeko asmoz. Betiko moduan beraien parte hartzea oso ona izan da, ikasle batzuei kostatu egin zaie filma ongi ulertzea baina beraien artean azaldu ondoren denek ulertu dute honek zuen mezua, eskola jazarpen homosexualarekin enpatia sentitzea eta problematika hau ateratzea.

Borobilean jarririk gai ezberdinen inguruan hitz egiten ari ginela, oso galdera interesgarri bat ateratu da, ikasleetako batek bere inguruan gertatzen den kasu erreal bat azaldu digu. Bera igeriketa talde bateko kidea da eta alboko herriko taldean trans* neska bat dago. Bera azaldu du ez duela inolako arazorik neska horrekin, eta guztiz errespetatzen duela bera neska gisa identifikatzea, baina ez dakiela oso ongi bidezkoa den ala ez, zakilarekin jaio den pertsona batek nesken kontra jolastea.

Ahal bezain ongi azaltzen saiatu naiz bera neska dela nahiz eta zakilarekin jaio, gure genitalek ez dutela gure generoa zehazten, baina zenbait ikaslek ideia horrekin ez datozela guztiz bat adierazi dute. Zakilarekin jaio izanak hormonalki eta genetikoki indar gehiago ematen omen dio eta kirolean gainontzeko neska baino trebeagoa izango dela azpimarratu dute.

Idea kontrajarriak agertu dira, eta gizarteak gudan sartzen duen mezu transfobikoa agerian geratu dela ikusi dut. Denek zioten pertsona hori neska dela neska sentitzen baldin bada, hori onartzea ez zaie kostatzen, baina hala ere neska bezala ikusi gabe jarraitzen dute. Oso barneratua dute genital eta generoaren arteko erlazioa eta baita genero bakoitzari dagozkien ezaugarri fisiko eta ahalmenak ere.

Ez zen izan mahi inguruan agertu zen gai interesgarri bakarra. Feminismoaren inguruan ere hitz egin genuen eta ikasle batek, feministak gizonezkoak gorroto zituztela esan zuen. Segituan moztu zuten hori ez zela horrela esanez, baina era berean feminismoa zer zen galdetu nienean, ez zuten jakin zer erantzun. Martxoak 8 izan zenean, denek aldarrikatu zuten egun hori, eta denek egin zuten bat borroka feministarekin, baina argi geratu da ez dutela benetan ulertzen borroka horren atzean zer dagoen, eta zergaitik jarraitu behar dugun bideari ekiten.

Bereziki interesgarria iruditu zitzaidan beste gaietako bat Marruekoeko homosexualena izan zen. Ikasgelan Marruekoen jaio edo gurasoan bertakoak diren hiru ikasle daude. Hiruek

erlijio musulmana dute eta bizi osoa Euskal Herrian egin duten arren, erlijio musulmana praktikatzen eta kultura zein tradizioak errespetatzen jarraitzen dute. Hiru ikasle horietako batek esan zuen Marruekoson iada ez dagoela pertsona homosexualik. Berak oso konbentziturik esan zuen, eta hori ez zela horrela azaltzen saiatu nintzenean, nahiko jarrera ezkorra aurkeztu zuen.

Azaldu nion, Marruekoson homosexualitatea gaizki ikusia dagoela, baina horrek ez duela pertsona homosexualen presentzia ezabatzen, hauek gobernuak zigortuak ez izateko ezkutatu egin behar zutela baizik. Ez zitzaion ideia gehiegi gustatu baina pare bat aldiz ideia errepikatu ostean eta modu ezberdinetan azaldu eta gero, errealitate berri hori onartu zuela esan genezake.

Martxoak 21:

Gorputz Hezkuntzako saioan burutuko dudan azken klasea izan da. Gaurkoan bi jolas edo ariketa egin ditugu, alde batetik “Ni ezberdina naiz, eta zer?” eta bestetik “Nor da nor”. Lehenengo ariketa oso ongi atera da, ikasleek gogotsu idatzi dituzte zirriborroan beraiek ezberdinak egiten dituzten hiru ezaugarri, eta koloretako kartel politak egin dituzte ondoren eskolan zehar zintzilikatzeko.

Bigarrena ordea, ez da hain ongi irten. Ikasleei kosta egin zaie hasiera batean jolasaren dinamika ulertzea, eskola jazarpena pairatzeko arrazoi ezberdinak daudela eta arrazoi horietako zein duten idatzirik asmatu beharko zutela. Hala eta guztiz ere, lortu dute galderak egin eta idatzita zuten horretara gerturatzea.

Amaierako hausnarketan, gaurko jarduerak beste klaseetakoak baina gutxiago gustatu zaizkiela adierazi dute, eta bereziki “Nor da nor” jolasa zaila egin zaiela azaldu dute. Beste urte batzuei begira, bigarren honi buelta bat eman beharko diot, izan ikasleei ematen zaien azalpena aldatuz edo asmatu behar dituzten hitz edo kontzeptuak moldatuz.

Martxoak 27:

Gaur ikasleak oso aztoraturik zeuden eta horrek dinamikak oztopatu ditu, denboraz larri ibili naiz beraiek jarduerak ulertu eta parte hartzeko prest egotea kosta egin zaidalako. Hala eta guztiz ere bi dinamikak aurrera atera dira eta nik nahi nituen helburuak bete ditut.

Liburuetan begira, nik uste bezala, neska eta mutilen estereotipo nagusiak agertu dira, amaieran bilaketan emaitzak bateratu ditugunean, mutil kopurua neskena baino lau aldiz

handiagoa izan da, 44 mutil eta 11 neska topatu dituzte. Horietatik gehiengo nagusia pertsona zuri, argal, eta gazteak ziren. Nesken kasuan ile luzedunak eta mutilen kasuan ile motzdunak.

Jardueraren amaieran honen inguruan jardun dugu, eta azaldu diet nola txikiak garenetik, neska eta mutilen irudi espezifiko bat barneratzen dugula, izan liburuetan, iragarkietan edo telesailetan, eta guk nahi gabe ere, irudi hori lortzen saiatzen garela, hori bait da gizartean onartuak izateko izan behar garena.

Bigarren jarduera ezaguna zutenez, dinamika azkarragoa izan da. Begiak itxirik jarri eta kasuren batean zalantzak izan dituzten arren, aurreko aldiarekin alderatuz, askoz ere ziurrago erantzun dute, eta debateak egon direnean, pisuzko argumentu eta arrazoiak ematen jakin dute, gehiengoak oso argi zuelako esaldia egia ala gezurra ote zen, eta hauen zergatia.


Martxoak 28:

Azken saioa, hilabete oso bateko lana borobiltzeko balio izan diguna. Ikasleek bi errubrika bete dituzte bat I+Z-ren ingurukoa eta bestea norberaren jarreraren ingurukoa. Azaldu zaie nola anonimoa den eta fitxaren amaieran jarri ditzaketen iradokizunak zintzoak izatea nahi dudana. Ikaskuntza Zerbitzu hau errepikatu beharko banu, beraiek zer aldatuko ote luketen eta beraien bizipenak nolakoak izan diren jakitea oso baliagarria izango bait zait.


Segituan bete dute, eta hasierako galdetegian zalantzak egon diren arren, orokorrean esan dezaket zenbait kontzeptu behar bezala barneratu dituztela eta orokorrean lorturiko emaitza positiboa dela. Amaieran borobilean jarririk zerbitzuaren inguruan solastu dugu eta orokorrean esperientzia positiboa izan denaren ondorioa atera da. Ikasleak gustura sentitu dira bai nirekin eta bai landutako gaiekin ere, beraz ni neu ere oso pozik atera naiz. Oso ikasle jator eta parte hartzaileak izan ditut eta horrek dinamiketan laguntzeaz gain, niri ere seguruago eta erosoago sentitzen lagundu dit, ez naiz inongo momentutan blokeatua edo gainditua sentitu eta horrek nik ere ikasleekin batera disfrutatzea eragin du.

8. ERANSKINA. IKASLEEN GALDETEGIAREN EMAITZAK


Hasieran




Amaieran




Hasieran



Amaieran




Hasieran



Amaieran

Ba al dakizu zer den generoa?

 Kopiatu

20 erantzun




- Bai.
- Ez.

Hasieran

Ondorengo definizioetatik aukeratu generoarekin bat egiten duena.


 Kopiatu

20 erantzun




- Bi genero daude, bat emakumezkoa eta bestea gizonezkoa.
- Identitatearekin erlazionaturik dagoen kontzeptu bat da. Hau da, pertsona nola identifikatzen denarekin erlazionatzen da eta ez du zertan genitalekin edo jaiotzen garen sexuarekin bat egin behar.


Amaieran




Hasieran




Amaieran




Hasieran




Amaieran



Hasieran




Amaieran



Hasieran



Amaieran




Hasieran




Amaieran



Hasieran



Amaieran



Hasieran

Zer egiten du Zumaiena eskolak hezkidetza sustatzeko?

20 erantzun

Ez dakit zer den hezkidetza

ez dakit

Ez dakit

Ez dakit.

Ikasle guztiei tratu berdinak ematen die.

Ez dakit zer den hezkidetza

pertsona guztiei eskubide laguntza eta aukerak eman

Lagundu

ez dakit zer den

bi generoentzako eskubide berdinak izatea

neskak eta mutilak batera egiten ditugu gauzak

ez dakit

Neska eta mutilak berdintzatzen ditugu.

Amaieran

Zer egiten du Zumaiena eskolak hezkidetzaz sustatzeko?

20 erantzun

ez dakit

bi generoei berdin defendatu

Neska zein mutil berdi tratatu.

kiva

Mutil zein neska berdin tratatzen ditugu.

EZ DAKIT

Ez dakit

Neskei eta mutilei berdin tratatzen diote

erantzun egin dut "ez dakit"

klasia eman

Mutilak eta neskak berdin tratatzen dituzte, edozein arlotan.


kiva

klaseak batera egin


Ez dakit zer den

Ez dakit


Hasieran




Amaieran




Hasieran




Amaieran




Hasieran



Amaieran



Hasieran



Amaieran




Hasieran




Amaieran




Hasieran



Amaieran




Hasieran




Amaieran



Hasieran




Amaieran



Hasieran



Amaieran




Hasieran



Amaieran




Hasieran




Amaieran



Hasieran



Amaieran



Hasieran




Amaieran



9. ERANSKINA. IRAKASLEEN GALDETEGIAREN EMAITZAK

Sexua, generoa eta genero identitatea

Ondorengo definizioetatik zein da sexuarekin bat datorrena?

 Kopiatu

3 erantzun




- Jaiotzen garen unean ditugun genitalek definitzen dute, arra eta emea bereizten dituen ezaugarri fisikoen multzoa.
- Neskak eta mutilak bereizten dituen ezaugarria da, alua badut neska naiz eta zakila badut mutila naiz.

Ondorengo definizioetatik aukeratu generoarekin bat egiten duena.


 Kopiatu

3 erantzun




- Bi genero daude, bat emakumezkoa eta bestea gizonezkoa.
- identitatearekin erlazionaturik dagoen kontzeptu bat da. Hau da, pertsona nola identifikatzen denarekin erlazionatzen da eta ez du zertan genitalekin edo jaiotzen garen sexuarekin bat egin behar.

Ondorengo aukeretatik, aukeratu genero identitatearekin bat egiten duena.


 Kopiatu

3 erantzun




- Zein generorekin identifikatzen garen.
- Zein genitalekin identifikatzen garen.
- Gizakiok generoaren inguruan garaturiko sentimenduari egiten dio erreferentzia.

Zenbat genero ezberdin ezagutzen dituzu?

 Kopiatu

3 erantzun



- 2.
- 4.
- 6.

Zerrendatu ezagutzen dituzun genero ezberdinak.

3 erantzun

Neska, Mutila, Intersexuala

Bisexuala, heterosexuala, homosexuala, asexuala

Neska, mutila, ez bitarra eta asexuala.

Hezkidetzeta eta eskola jazarpena

Ondorengo definizioetatik zein da hezkidetzarekin bat egiten duena?


 Kopiatu

3 erantzun



- Hezkidetzak, ezberdintasun sozialekin amaitu nahi du, genero guztiei aukera eta tresna berdinak eskainiz.
- Klase emateko modu bat da.
- Neska eta mutilen arteko berdintasuna da.

Zure klaseetan hezkidetza bermatzen saiatzen zara?

 Kopiatu

3 erantzun



● Bai.
● Ez.

Erantzuna baiezkoa izan baldin bada, nola bermatzen duzu?

3 erantzun

Izaera guztiak kontuan edukiz

Berdintasuna sustatzen saiatzen naiz orduro.

Talde mixtoak eginez eta ikasle guztiei eukera eta eskubide berdinak bermatuz, generoa dela eta inor baztertu gabe.

Zer egiten du Zumaiena eskolak hezkidetza sustatzeko?

3 erantzun

Emaumearen aurkako indarkeriaren eguna bezalako egunetan lanketa egin adibidez.

Talde bat dago hezkidetza taldekoa. Horiek egun zehatzak prestatzen dituzte: martxoak 8...bestela besteok ikasleen arteko gatazketan esku hartzen dugu, gure jarrera berdintasunera bideratua dago...

Ikasgela barnean ikasle guztiak berdin tratatuz, aukera berdinak dituztela berrestuz eta feminismoan oinarrituriko hezkuntza hezkuntza sistemak bultzatuz.

Zer da eskola jazarpen homofobikoa?


3 erantzun

sexualitate ezberdina dutenen jazarpena


Sexualitatearen inguruko jazarpena egitea da

Homosexuala izateagatik, edo gizarteak ezartzen dituen rolen barruan ez sartzeagatik egiten den jazarpen mota.

Zumaiena eskolan, eskola jazapena gertatzen al da?


 Kopiatu

3 erantzun




● Bai.
● Ez.

Jazarpen homofobikoa ematen al da?

 Kopiatu

3 erantzun



● Bai.
● Ez.

Jazarpena dagoela esan baduzu, irakasle eta eskola bezala zein pauso ematen dira? Zein da lan egiteko metodologia?

0 erantzun

Ez dago erantzunik galdera honentzat.

Gorputz Hezkuntzako saioak

Zein metodologia erabiltzen duzu klaseak prestatzeko?


3 erantzun

Bat baino gehiago erabiltzen ditut.


Parlebasen oinarrietan jartzen dut arreta. unitate didaktikoetan banatzen dut urtea, eduki ezberdinak lantzeko

Aginte zuzeneko metodologia erabiltzen dut.


Gorputz Hezkuntzako klaseak prestatzerako garaian, neska eta mutilen arteko bereizketarik egiten al duzu?

 Kopiatu


3 erantzun



Erabili izan duzu GH saioen bat genero berdintasuna lantzeko?

 Kopiatu

3 erantzun



Baietz esan baduzu, nola edo zer egin duzu?

3 erantzun

Denak nahastuz eta ahalmen mota ezberdinak landuz.


Askotan lantzen ditut kirolean ematen diren egoera ezberdinak, hauek normalizatzen saiatzen naiz. Ikasleak hauek egoki ikusten

Talde mistoak sortu eta klasean generoa dela eta sortu daitezkeen liskarrak errotik moztuz.


Klaseak prestatzerako garaian, ikasgelako aniztasuna eta gaitasun ezberdinak kontuan hartzen dituzu?

 Kopiatu


3 erantzun



Jolasetan neska eta mutilen parte hartzea berdina al da?

 Kopiatu

3 erantzun



Uste duzu GH saioak genero berdintasuna lantzeko aproposak izan daitezkeela?

3 erantzun

Bai

Noski

Bai.